

KOIUNTURAZ

66. zkia. – 1. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
EAE-KO EKONOMIA 2008KO LAUGARREN HIRUHILEKOAN	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	13
Ekoizpen jarduera	14
Eskariaren osagaiak	18
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	20
Lan merkatua.....	26
Prezioak, kostuak eta soldatak	32
Arlo publikoa.....	37
Finantza arloa	39
EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK	45
Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak	45
EAErako aurreikuspenak epe laburrean.....	53

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2008ko laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak lau hamarrenetara mugatu zuen barne produktu gordinaren hazkundera, hiruhilabeteko datuen bilakaera argitaratzen hasi zenetik (1995. urtetik) inoiz jaso den txikiena baita. Hala eta guztiz ere, oraindik hazkunde tasa positiboei eutsi die, garatutako ekonomia eremu ia guztietan, epealdi berean, beherakadak jaso ziren bitartean (1. taula). Are gehiago, EAEko ekonomiaren hazkunderaren eta Europar Batasunaren batez bestearen artean zegoen aldea zabaldu da epealdi horretan eta 1,7 puntuetara iritsi da. Beraz, mundu osora hedatu den krisiak EAEko ekonomian ere eragina duen arren, datu makroekonomikoez iradokitzen dute oraingoz kaltea txikixeagoa izaten ari dela EAEn besteetan baino.

BARNE PRODUKTU GORDINA

1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2007	2008			
			IV	I	II	III	IV
Europar Batasuna 27	2,9	0,9	2,6	2,4	1,7	0,7	-1,3
- EAE	4,1	2,0	3,8	3,2	2,5	1,8	0,4
- Espainia	3,7	1,2	3,3	2,7	1,8	0,9	-0,7
- Alemania	2,5	1,3	1,7	2,8	2,0	0,8	-1,6
- Frantzia	2,2	0,8	2,2	2,1	1,2	0,6	-1,0
- Italia	1,5	-1,0	0,2	0,3	-0,4	-1,1	-2,6
- Erresuma Batua	3,0	0,7	3,0	2,6	1,7	0,2	-1,9
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,0	1,1	2,3	2,5	2,1	0,7	-0,8
Japonia	2,4	-0,7	2,2	1,4	0,6	-0,2	-4,3
Txina	13,0	9,0	11,2	10,6	10,1	9,0	6,8
India	9,3	7,3	8,9	8,8	7,9	7,6	5,3
Errusia	8,1	6,2	9,5	8,5	7,8	6,2	1,1
Brasil	5,7	5,1	6,1	5,9	6,1	6,8	1,3

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.


Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Munduko ekonomiak hazkunde tasa gutxitzeko joerari jarraipena eman dio eta 2008. urte amaieran gelditasuneko egoera garbian murgilduta zegoen. The Economist aldizkariak munduko BPGren %90 biltzen duten 52 herrialdeetarako egin duen estimazioak adierazten du munduko ekonomiaren hazkundera 2008ko amaieran hutsala izan zela (1. irudia, ezkerre). Beraz, garapen bidean dauden bi bultzagile nagusien (Txina eta India) hazkunde tasa oraindik

garrantzitsuak munduko gainontzeko eremuetako ahultasuna konpentsatzeko bakarrik balio izan zuen. Dena dela, bi herrialde horiek ere bizitasuna galdu zuten eta bi puntu luze gutxiago hazi ziren, garatutako ekonomietan gertatzen denak beren bilakaera ere baldintzatzen duela (desakoplamentuaren teoria gezurtatuz) agerian utziz. Gogoratu behar da bi erraldoi horien bizitasunaren zati handi bat, bereziki Txinaren kasuan, ekonomia aurreratuek egiten dizkieten erosketetatik datorkiela eta hauek neurri gabe murriztu direla azken hilabeteetan.

Munduko ekonomiaren bilakaera eta 2009rako aurreikuspenak

1. irudia



Iturria: The Economist (bilakaera) eta NDF (aurreikuspenak).

Aurten ez da susperraldirik aurreikusten munduko ekonomiarentzat. Aitzitik, ekonomiaren aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakundeek gero eta ezkorragoak diren eszenategiak argitaratzen dituzte urte osorako, beheranzko zuzenketak etengabeak direlarik. Adibide bat baino ez dira NDFk 2009. urterako egin dituen aurreikuspenak. Hain zuzen ere, munduko ekonomiarentzat %4,4ko gehikuntza tasa aurreratzetik %0,5era murriztu du bere aurreikuspena urtebete bateko epean (1. irudia, eskuina), udaberriko txostenean tasa negatiboetara igaroko direla azken hitzaldietan iradoki duten bitartean.

Lehenago aurreratua izan denez, garatutako ekonomiak balio negatiboenak jasotzen ari dira, eta ekonomia eremu ia guztiak dagoeneko atzeraldian daude. Hasierako finantza krisitik ekonomia errealeko krisi batera igaro da, eskariak eta eragileen igurikimenez behera egin dutelarik. Horrek guztiak izugarri zailtzen du susperraldia bultzatzeko neurriak onartzea. Krisiari aurre egiteko neurriak AEBetan hartu ziren bizkorren, hala moneta alorrean (interes

tasa ofizialak nabarmen jaitsi ziren) nola aurrekontuen esparruan (ekonomia suspertzeko diru kopuru handiak erabili dituzte). Europako erantzuna tamaina txikiagokoa izaten ari da: interes tasen beherakadak apalagoak izan dira eta herrialdeek hartu dituzten neurrietan nolabaiteko koordinazio falta hauteman da. Bi eremuetan, ekonomia atzeraldian dago eta barne produktu gordinaren urte arteko aldakuntza tasak jaitsiera garrantzitsua jaso du. Europari dagokionez, azpimarratzekoa da Italiaren, Erresuma Batuen eta Alemaniaren egoera txarra, tasa negatiboek %1,5 gainditzen baitute herrialde horietan guztietan.

Paradoxikoa ematen duen arren, ekonomia errealearen narriadurak berak susperraldia lortzen lagunduko duten hainbat mugimendu eragin ditu. Moneta eta ekonomia politikaren arduradunek onartu dituzten neurriez gain, eskariaren beherakadak eta igurikimeneen okertzeak petrolioaren eta beste ekoizkin batzuen salneurriaren jaitsiera oso garrantzitsua bultzatu dute, inflazioaren adierazleetara igaro dena. Hain zuzen ere, kontsumoko prezioen indizeak azken hamarkadetako maila apalenetan daude. Horrekin batera, interes tasen jaitsierak familien erosteko ahalmena hobetu du, higiezinaren eta burtsaren balioaren galerak eta enpleguaren beherakadak asko kaltetu baitzuten.


Petrolioaren prezioaren eta interes tasen bilakaera

2. irudia

Upelaren salneurria eurotan



CECAren erreferentzia tasa



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.


Testuinguru horretan, EAEko ekonomiak %0,4ko hazkunde positiboa lortu zuen iazko laugarren hiruhilekoan. Tasa hori oso txikia da, baina kontuan hartu behar da inguruneke ekonomia nagusi guztietan beherakada orokorrak jaso zirela. Hiruhilekoan lortu zen

gehikuntza guztia kanpo saldoak ekarri zuen, barne eskariak ez baitzuen inolako ekarpenik egin epealdi horretan. Kontsumo pribatuaren eta kapital eraketa gordinaren urte arteko jaitsierak kontsumo publikoaren bultzada sendoak konpentsatu zuen. Arlo publikoa zikloaren aurkako joera garbia ari da erakusten, eskari pribatua ahul dagoen une hauetan. Barruan zein kanpoan gauzatu den ahultasunak jaitsiera garrantzitsuak ekarri dizkio merkataritzari. Hain zuzen ere, EAEko esportazioak %3,8 murriztu ziren termino errealetan eta inportazioak %4,2. Bi bilakaera horien ondorioz, kanpo saldoak hobera egin zuen eta hazkundeari lehenago aipatu diren lau hamarrenak ekarri zizkion.


BPGren hiruhilabeteko hazkundera eta ekarpenak

3. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Eskarrien ekarpenak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Eskaintzaren ikuspegitik, zerbitzuak izan ziren beren balio erantsia areagotu zuten bakarrak. Eraikuntzak dagoeneko hirugarren hiruhilekoan jaso zuen urte arteko jaitsiera bat, urteko azken hiruhilekoan areagotu zuena. Orobat, industriak azken hamarkadan aurrekaririk ez zuen ahultasuna erakutsi zuen urte amaieran. Industria ekoizpenaren beherakada kontsumoarekin zerikusi handiena duten jardueretan hasi zen, baina azken hilabeteetan makaltasun hori inbertsiorako ondasunetara eta bitarteko ondasunetara igaroa zen. Zerbitzuen artean, merkaturatzen direnek zenbait hamarrenetan moteldu zuten beren bizitasuna, baina %1,6ko tasari eutsi zioten. Beste aldetik, merkaturatzen ez diren zerbitzuek (administrazioaren jardunari lotuta baitaude) %7tik gorako gehikuntza tasak lortu zituzten berriro, arlo publikoak, irakaskuntzaren eta osasunaren bitartez, lehiakortasuna hobetzeko egiten dituen ahaleginen isla delarik.

EAE-KO EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2007		2008		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	4,1	2,0	3,8	3,2	2,5	1,8	0,4
Enplegua	2,8	1,1	2,7	2,0	1,6	0,7	-0,1
Ekoizkortasun irabaziak	1,3	0,9	1,1	1,2	0,9	1,1	0,5
Langabezia tasa	3,3	3,8	3,1	3,3	3,5	3,5	4,6
Kontsumoko prezioen indizea	2,8	4,1	4,0	4,3	4,5	4,8	2,8

Iturria: Eustat eta INE.

Ekoizpenaren hazkunde txikia ez zen nahiko izan enpleguari eusteko eta azken honek behera egin zuen lehenengo aldiz gutxienez hamahiru urtean. Hala ere, jaitsiera oso txikia izan zen (%-0,1). Eraikuntzak bereganatu zuen galdutako lanpostuen zati handi bat, baina industriak ere enplegua galdu zuen. Aitzitik, zerbitzuetan oraindik lanpostuak sortu ziren. BPGren moteltzeak eta enpleguaren gelditasunak ekoizkortasunaren irabaziak murriztu dituzte eta azken bi urteetako emaitzen oso azpitik geratu da. Oraingoz, enpresek langileen kontratuak mantentzea aukeratu dute, susperraldia laster etorriko delakoan. Lanpostu batzuk galdu zirenez eta lan merkatuan parte hartu nahi dutenen kopurua zertxobait igo zenez, langabezia tasa gora egin zuen laugarren hiruhilekoan, baina oraingoz maila baxu samarrean jarraitzen du (%4,6an). Azkenik, kontsumoko prezioek moteltzeko joera bizia hartu zuten, 2009ko lehen hilabeteetan jarraitu duena, eta urte arteko aldakuntza tasa %1,1ean kokatu da, berrogei urtean inoiz jaso den txikiena baita. Deflazioaren arriskuaz hitz egiten den arren, urte amaiera arte egin diren aurreikuspenek iradokitzen dute adierazle horrek goranzko joera hartuko duela udazkenean, petrolioaren merkatze bizia konpentsatzen denean.

Datozen hiruhilekoei begira, Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenek gaur eguneko moteltzea areagotuko dela aurreikusten dute, eta EAEko ekonomiak hiruhilabete bat baino gehiago igaroko du aldakuntza tasa negatibotan, urteko batez bestean %-1,3aren inguruko tasa jasoko duenarik. Beraz, inguruko ekonomia bezalako bilakaera aurreikusten da, baina beherakada ez dela horren bizia izango espero da. Azken urteetan EAEko industriak lortu duen dibertsifikatzea, eraikuntzaren pisua txikiagoa izatea eta krisialdietarako funtsak edukitzea ahalbidetu duen aurrekontu politika bat dira Euskadin emaitza ez dela horren negatiboa izango pentsarazten duten giltza batzuk. Aurtengo hirugarren hiruhilabeterako joera aldaketa aurreikusten da, baina zenbait hiruhileko gehiago beharko dira aldakuntza tasa positiboetara itzultzeko.

Eskariaren ikuspegitik, kontsumo pribatuaren jaitsiera areagotuko da, beste arrazoien artean, enpleguen galeragatik (urteko batez bestean %-2,6), soldaten igoera txikiarengatik, familien igurikimen ezkorragoengatik, kontsumorako kredituak lortzeko dauden zailtasunengatik, aktiboen balio galerarengatik eta zuhurtziaz gehiago aurreztuko delako. Inbertsioak ere nozituko du krisi globalak, negozioak egiteko itxaropenak ahuldu direlako eta kredituak lortzea zailagoa delako.

EAE-RAKO AURREIKUSPENEN LABURPENA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	2,0	-1,3	-0,8	-1,4	-1,9	-1,1	-0,8
BPGren deflatoarea	3,0	2,2	2,1	2,3	2,3	2,1	2,0
Enplegua	1,1	-2,6	-2,3	-2,6	-2,8	-2,5	-2,1
Langabezia tasa	3,8	8,4	7,0	8,3	8,8	9,5	9,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Industria ekoizpenaz dagoeneko argitaratu diren emaitzek balio erantsiaren beherakada garrantzitsua aurreratzen dute lehen hiruhilabeterako, baina aldi berean jaitsiera moteltzeko nolabaiteko joera ere aurreikusten da. Hori dela eta, industriak aurtengo bigarren erdian, beharbada laugarren hiruhilekoan, susperraldi geldo bat izango duela aurreikusten da. Antzeko bilakaera espero da etxegintzarentzat, 2009ko hasierako hilabeteetan doikuntzaren alde gogorrena atzean uzten ari dela ematen baitu. Zerbitzuetan oraindik arlo publikoaren bizitasuna nabarrituko da, baina gainontzeko adarretako jarduera faltak sektore hau ere kutsatuko du. Beraz, hazkunde txikia lortuko dute.

Krisiak aurrera egingo duen heinean, zailagoa izango da langileen kopuruari eustea eta iraitzteak gero eta ugariagoa izango dira. Enplegua urteko batez bestean %2,6 murriztuko dela aurreikusten da. Gizarte Segurantzak dagoeneko argitaratu dituen afiliazioaren datuek tasa horren inguruan daude. Nahiz eta desagertuko diren lanpostu horietako asko aurretiazko erretiroak izango diren arren, lanik gabeko pertsonen kopurua igoko da eta langabezia tasak %9,5era gora egingo du urte amaieran, estimazio honen arabera. Inflazioa maila apaletan kokatuko da, baina urte amaieran KPI indizea apur bat goratuko da. Hala ere, BPGren deflatorearen terminoetan, prezioak gutxi igoko direla espero da.

EAE-KO EKONOMIA 2008KO LAUGARREN HIRUHILEKOAN

EAEko ekonomiaren testuingurua

2008. urtea nazioarteko finantza merkatuen ezegonkortasun luzeak baldintzatu zuen. Horrek munduko ekonomia jarduera ahuldu zuen, konfiantza galarazi zuen eta kreditua lortzea zailago egin du, bereziki arlo pribatuan. Ekonomiaren narriadura hilabetez hilabete areagotu zen eta urteko azken hiruhilekoan bereziki etsigarria izan zen, herrialde gehienek hazkunde tasa negatiboak jaso zituztelako. Hasieran finantza krisia zena ekonomia errealerara igaro da, eta azken hilabeteetako bilakaerak egoeraren larritasuna egiaztatu besterik ez du egin. Izan ere, analisigile askoren ustez Bigarren Mundu Gerraren amaieratik inoiz bizi den atzeraldirik handiena da oraingoa, eta batzuek esaten dute hogeita hamarretako Depresio Handiaren antzekoa izan daitekeela.


Atzeraldia iritsi denean, familien zorpetze maila beraien errenta erabilgarri gordina baino handiagoa zen, eta finantza aktiboek zein errealek balioaren zati handi bat galtuta zuten. Horri gehitzen bazaio jardueraren narriadura oso azkar igaro dela lan merkatura, eta lanik gabe dagoen biztanleria oso nabarmen areagotu dela, garbi geratzen da etorkizun hurbilerako iritzia ez dela bat ere baikorra. Horixe da, hain zuzen ere, nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspenek adierazten dutena, krisiaren irteera 2009. urtearen amaieran edo behin 2010. urtean sartuta iritsiko dela uste baitute. Interes tasen beherakadak, lehengaien, bereziki petrolioaren, prezioen jaitsierak, inflazioaren moteltzeak eta zergen bidez abiarazi diren nazioarteko planek inoizko maila txikienetan dauden konfiantza adierazleak igotzen lagunduko dutela.

Ekonomiaren egoera larria den arren, urteko balantzea positiboa izan zen ekonomia eremu nagusi gehienetan. Hala ere, lortu ziren hazkunde tasak aurreko urteetakoak baino nabarmen txikiagoak izan ziren. Europar Batasuna %0,9 hazi zen, 1996. urtean datuen seriea sortu zenetik jaso duen emaitza apalena baita, esportazioek eta inbertsioak portaera okerragoa izan zutelako. Amerikako Estatu Batuek ere subprime krisiaren ondorioak nozitu zituzten, baina berez arazo hori bertan sortu bazen ere, ez zen oso kaltetuta geratu horretatik, eta %1,1 hazi zen, 'puntucom' enpresen krisia eta irailaren 11ko atentatuak gertatu zirenetik inoizko emaitzarik txikiena jasoz. Baina, zalantzarik gabe, ekonomia garatuenen artean kalte handiena izan zuen herrialdea Japonia izan zen, kanpo arloaren mendekotasun gehiegizkoa duelako.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

Txina %9 hazi zen 2008. urtean, 2007an lortu zuena baino lau puntu gutxiago eta azken zazpi urteetako erritmo geldoena delarik. Higiezin merkatuaren bat-bateko doikuntzak eta berarentzat merkatu nagusiak diren hiru herrialdeen (AEB, Europar Batasuna eta Japonia) eskaria jaitsi izanak agerian utzi zuten esportazioen moteltzeak (BPGren ia herena baitira) Asiako herrialde horretako ekonomia jardueran izan zuen eragin handia. Hain zuzen ere, salmenten beherakadak kalte handia egin zien Txinako enpresa esportatzaileei eta 670.000 lantegi itxi ziren, hamar milioi lanpostu inguru galdua. Izan ere, hirietako langabezia tasa, nekazariak eta immigranteak sartu gabe, %4,2ra igo zen, 2003. urtetik jaso duen maila gorena delarik. Amerika Latinoak eta Karibeak ere krisiaren ondorioak nozitu zituzten eta %4,6 hazi ziren, aurreko sei urteetan lortutako hazkunde tasa gero eta handiagoei amaiera emanez. Txinan gertatu zen bezala, gehikuntza tasaren moteltzea biziagoa izan zen AEBekin merkataritza harreman handiak dituzten beste herrialdeetan ere. Azkenik, Errusiak %6,2 areagotu zuen bere BPG, azken zortzi urteko maila txikiena baita, zeren eta 2001. urtetik beti gainditu baitzuen %7ko tasa.

Garapen bidean dauden herrialdeak finantza krisitik salbu egongo zirela espero zen, kapitaleko nazioarteko merkatuetatik babestuago daudelako, eta munduko ekonomiaren jarduera bultzatzen jarraituko zutela. Hala ere, esportazioen kolapsoak eta lehengaien merkatzeak eragin garrantzitsua izan zuten herrialde horietan urte amaieran eta hasieran espero zena baino hazkunde tasa txikiagoak jaso zituzten.

AEBetako ekonomiak gehikuntza tasa moteltzeko joera garbia erakutsi zuen hiruhilekoz hiruhileko eta tasa negatiboetara igaro zen urteko azken hilabeteetan. Hala ere, urte osoko hazkundera %1,1era iritsi zen, oraindik positiboa baina azken zazpi urteko txikiena. Lehenengo aldiz hamazazpi urtean, barne eskariak ez zion inolako ekarpenik eman hazkunderari, kontsumo pribatuaren ahultasunarengatik eta, bereziki, inbertsioaren jaitsiera garrantzitsurengatik, hala eraikuntzaren atalean nola ekipamendu eta software atalean. Gastu publikoaren gehikuntzak eta esportazioek konpentsatu zuten, neurri batean, beste osagaien ahultasuna. Esportazioek urteko batez bestean gorakada azpimarragarria lortu zuten arren, hilabetez hilabete merkataritzako bazkide nagusien bilakaera txarra nabaritu zuten. Eraitza negatiboenak lan merkatuak jaso zituen, 1945etik ezagutu diren datu okerrenak gainditu zituelako, 2008an 2,5 milioi lanpostu galdua, horietatik ia 2 milioi urteko azken lau hilabeteetan. Azkenik, prezioak nabarmen igo ziren abuztua arte. Hilabete horretatik aurrera, ordea, gutxiago hazten hasi ziren eta urte amaierarako hazkunde negatiboetara hurbildu ziren.

Eskari globalaren ahultasunak Japoniaren erritmoa gutxitu zuen, ekonomia horren bultzagile nagusiak moteldu zituelako. Izan ere, esportazioek eta inbertsioak, bereziki ekipamenduan eta higiezinetan, BPGren herena baino gehiago biltzen dute eta beraien portaerak azaltzen du, neurri handi batean, Japoniako krisia. Moteltzeko joera horri gehitzen bazaio kontsumoaren

geldotasuna begi bistan gelditzen da ekonomia hori atzeraldian dagoela. Hain zuzen ere, 2008ko laugarren hiruhilekoan gutxienez azken hamahiru urteko atzeraldirik sakonena jaso zuen. Langabezia tasa egonkor mantendu zen urte osoan zehar eta ez zuen nozitu enpresa handiek, esportazioen beherakadaren ondorioz, egin behar izan zituzten iraizte masiboen kaltea. Deflazioa arazoa izateari utzi zion eta KPI indizea %1,4ra igo zen urteko batez bestean.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	2007	2008	2007	2008			
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala							
AEB	2,0	1,1	2,3	2,5	2,1	0,7	-0,8
Japonia	2,4	-0,6	2,1	1,4	0,5	-0,2	-4,3
EB - 27	2,9	0,9	2,6	2,4	1,7	0,7	-1,3
- Alemania	2,5	1,3	1,7	2,8	2,0	0,8	-1,6
- Frantzia	2,2	0,8	2,2	2,1	1,2	0,6	-1,0
- Erresuma Batua	3,0	0,7	3,0	2,6	1,7	0,2	-1,9
Inflazioa							
AEB	2,9	3,8	4,0	4,1	4,4	5,3	1,6
Japonia	0,1	1,4	0,5	1,0	1,4	2,2	1,0
EB - 27	2,4	3,7	3,0	3,5	3,9	4,3	2,9
- Alemania	2,3	2,8	3,0	3,1	3,0	3,3	1,7
- Frantzia	1,6	3,2	2,5	3,3	3,7	3,6	2,0
- Erresuma Batua	2,3	3,6	2,1	2,4	3,4	4,8	3,9
Langabezia tasa							
AEB	4,6	5,8	4,8	4,9	5,4	6,1	6,9
Japonia	3,9	4,0	3,8	3,9	4,0	4,1	4,0
EB - 27	7,1	7,0	6,9	6,8	6,9	7,0	7,3
- Alemania	8,4	7,3	8,0	7,6	7,4	7,2	7,2
- Frantzia	8,3	7,7	7,8	7,6	7,7	7,7	8,0
- Erresuma Batua	5,3	5,6	5,1	5,1	5,4	5,8	6,2

Iturria: Eurostat eta ELGE.

Europako ekonomiaren apaltzea urratsez urrats gauzatu zen 2007ko bigarren sei hilekotik eta atzeraldia bihurtu 2008. urtea amaitu zenerako. Europar Batasuneko herrialde nagusi guztiek aldakuntza tasa negatibotan amaitu zuten 2008. urtea, nahiz eta kasu gehienetan lehen sei hilekoaren egonkortasunak eta sendotasunak urteko balantzea positiboa izatea ahalbidetu zuten. Izan ere, haietako batzuek bizi zuten egoera lauogeita hamarretako hasierakoa

bezalakoa izan zen. Garai hartako krisiak ere ekonomia jardueraren beherakada eta langabeziaren gorakada neurrigabea ekarri zituen. Inbertsioaren eta esportazioen portaera txarrak azaltzen du, neurri handi batean, ekonomiaren oraingo bilakaera. Hala eta guztiz ere, 2008ko balantzea positiboa izan zen eta BPGren gehikuntza tasa %0,9an kokatu zen. Langabezia tasa ez zen gehiegi aldatu, baina igotzeko joera txikia erakutsi zuen. Azkenik, prezioak nabarmen igo ziren udako hilabeteetan, baina handik gutxira ohiko maila baxuagoetara hurbildu ziren.

Alemanian, esportazioen beherakada handiaren ondorioz kanpo saldoak ez zion inolako ekarpenik egin hazkundeari. Horrekin batera, kontsumo pribatua zeharo amildu zen eta inbertsioak indarra galdu. Aurrekoaren ondorioz, azken hiru urteko hazkunde tasa txarrena jaso zuen. Frantzian, kontsumo pribatuak erakutsi zuen erritmoa ez zen nahiko izan inbertsioaren geldotasuna eta kanpo saldoaren beherakada garrantzitsua konpentsatzeko. Beraz, urte osoko hazkunde tasa %0,8 baino ez zen izan. Erresuma Batuan, barne eskariaren osagai ia guztiak jaitsi egin ziren. Bereziki gogorra izan zen etxegintzan eginiko inbertsioarena. Aitzitik, beste herrialdeetan ez bezala, Erresuma Batuan kanpo saldoak ekarpen positiboa egin zuen urteko batez bestean. Hala ere, bere bazkideena bezalako joera erakutsi zuen eta hilabeteetan zehar moteltzeko norabide garbia erakutsi ondoren, atzeraldi sakonean sartu zen urteko azken hiru hilabeteetan.

Urtea aurrera zihoan heinean, herrialde guztiek izan zituzten gehikuntzak langabezia tasan eta ekonomiaren egoera orokorra gero eta okerragoa izan zen. Hala eta guztiz ere, azken lau urtean Europar Batasuneko herrialde nagusietan langabezia jaitsarazteko eta kontrolatzeko joera garbia egon zenez, urteko bigarren seihilekoan gertatu zen gorakada ez zen bereziki deigarria izan eta urteko batez bestea, kasu askotan, 2007. urtekoa baino txikiagoa izan zen. Prezioen bilakaerak mugimendu kontrajarriak egin zituen urtean zehar. Urtearen lehen erdian, energiaren etengabeko garestitzeak bultzatuta, inflazioa oso bizkor igo zen, baina bigarren erdian guztiz bestelako joera hartu zuen. Hain zuzen ere, Europar Batasunak %1,7an kokatu zuen kontsumoko prezioen indizea 2009ko otsailean, gutxienez 1997tik inoiz jaso den maila apalena baita, Alemaniak eta Frantziak, beste herrialde batzuekin batera, azken urteetako emaitzarik txikienak lortu zituztelako. Prezioek azken hilabeteetan izan duten zuzenketa hain handia izan da ezen gaur egun deflazioaz hitz egiten hasi baita, halakorik gertatzea oso zaila bada ere.

Espainia atzeraldiko eszenategi batera itzuli zen hamabost urte beranduago. Inbertsioaren eta kontsumoaren beherakada bizia izan zen espainiar ekonomia 2008an %1,2 bakarrik hazi izanaren arrazoia, laurogeita hamarretako krisitik jasotako apalena eta aurreko urtekoa baino bi puntu eta erdi txikiena delarik. Orduko hartan bezala, kanpo eskariak 1,1 puntu ekarri zizkion hazkundeari eta etxegintzan zein ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren jaitsiera

konpentsatu zuen. Eskaintzaren ikuspegitik, arlo gehienek ekonomiaren bilakaera txarraren eragina nozitu zuten eta hazkunde tasa negatiboak jaso. Urteko balantzean, energia eta zerbitzuak izan ziren salbuespena, baina hiruhilabeteakoko bilakaerak moteltzeko joera garbia erakutsi zuen eta ohi baino hazkunde tasa txikiagoak jaso zituzten.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2007	2008			
			IV	I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	3,8	1,4	3,3	2,4	1,8	1,4	-0,1
- Familien gastua	3,4	0,1	2,9	2,0	0,8	-0,2	-2,3
- Administrazioaren gastua	4,9	5,3	4,4	3,7	5,0	6,1	6,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	-3,0	4,5	2,4	-0,8	-4,1	-9,3
- Ekipamendurako ondasunak	10,0	-1,1	7,1	5,2	1,8	-1,3	-9,7
- Eraikuntza	3,8	-5,3	2,9	0,2	-3,1	-7,3	-10,9
- Bestelako ekoizkinak	3,9	1,9	6,0	5,9	3,2	2,5	-3,7
- Izakinen aldakuntza (*)	-0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0	0,0
Nazio eskaria (*)	4,4	0,1	3,8	2,6	1,2	-0,2	-3,0
Esportazioak	4,9	0,7	4,0	4,8	4,4	1,5	-7,9
Inportazioak	6,2	-2,5	4,9	3,6	1,8	-2,0	-13,2
BPG (m.p.)	3,7	1,2	3,3	2,7	1,8	0,9	-0,7
Nekazaritza eta arrantza	3,0	-0,6	2,1	1,1	-0,1	-0,5	-2,7
Energia	0,8	1,9	1,7	1,6	3,5	2,5	0,0
Industria	2,8	-2,7	1,0	0,0	-2,2	-2,9	-5,5
Eraikuntza	3,5	-3,3	2,8	1,5	-2,0	-4,6	-8,0
Zerbitzuak	4,6	3,1	4,8	4,0	3,7	2,9	1,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,7	-0,1	-1,5	0,5	0,3	-0,1	-0,9
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	2,8	4,1	4,0	4,4	4,6	4,9	2,5
- Enplegua (**)	2,9	-0,6	2,2	1,6	0,1	-0,9	-3,1

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Zalantzarik gabe, abagune honetako eremurik kaltetuena lan merkatua da. Izan ere, enpleguaren sorrera, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %0,6 gutxitu zen, 2007ko tasa baino hiru puntu eta erdi txikiagoa delarik. Horren ondorioz, 112.100 lanpostu galdu ziren, horietako gehienak eraikuntza arlokoak. Prezioen bilakaerari dagokionez, kontsumoko prezioen indizea %4,1era igo zen, baina urteko azken hilabeteetan lehen hiruhilabeteetako

goranzko joerak irauli egin zuen. Hain zuzen ere, abenduan KPI indizea %1,4an kokatu zen eta 2009ko otsailean, berriz, %0,7ra jaitsi zen, 1969. urteko ekainetik inoiz jaso den tasarik apalena delarik.

Azkenik, Administrazio Publikoek 41.874 milioi euroko defizita izan zuten 2008. urtean, BPGren %3,82 delarik. Zor publikoa hiru puntu igo zen eta BPGren %39,4an kokatu, Euroguneko batez bestea ia 30 puntu gorago dagoen bitartean. Beraz, Espainia da, Europako herrialdeen artean, aldagai horretan ehuneko txikiena dutenetako bat.

Ekoizpena eta eskaria

2008ko laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %0,4 baino ez zen hazi, hots, aurreko hiruhilekoan baino 1,4 puntu gutxiago. Hiruhilabete arteko terminoetan ageriago geratzen da EAEko ekonomia nozitzen ari den moteltzeko joera bizia, zeren eta urritik abendura bitarteko epealdian ekonomia jarduera %-1,1 jaitsi baitzen aurreko hiru hilabeteen aldean. Hala eta guztiz ere, 2008. urtean batez besteko hazkunde tasa %2,0ra iritsi zen, 2007. urtean lortutakoaren erdia delarik.

Bilakaera negatibo horren oinarrian, kontsumo pribatuaren okertzea dago, baina baita industria jardueraren beherakada eta eraikuntzan zein ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren jaitsiera ere. Elementu horiekin guztiekin, eta kontsumo publikoak bizitasun handia erakutsi zuen arren, barne eskariak ez zion inolako ekarpenik egin hazkundeari. Laugarren hiruhilekoan lortu ziren lau hazkunde hamarrenak kanpo saldoak ekarri zituen. Nazioarteko atzeraldiaren ondorioz, bai esportazioek bai inportazioek nabarmen gutxitu zuten beren hazkundera. Bereziki, atzerrian erositakoa murriztu zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, EAEko ekonomia osatzen duten ekoizpen arlo guztiek, inolako salbuespenik gabe, okertze garrantzitsua izan zuten urteko azken laurdenean. Zehazkiago adierazita, arlo guztiek, zerbitzuek izan ezik, ekarpen negatiboak egin zizkioten balio erantsiaren hazkundeari. Bereziki kezkagarria izan zen industriak 2008ko azken hiruhilekoan izan zuen narriadura. Beste aldetik, eta ekonomia jarduerak izan zuen ahultzearen ondorioz, ekoizpenaren gaineko zerga garbiek zerotik hurbil dagoen hazkunde tasa negatiboa jaso zuten epealdi horretan.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2007		2008		
			IV	I	II	III	IV
Barneko azken kontsumoa	3,8	2,0	3,7	3,1	2,3	1,9	0,9
- Familien gastua kontsumoan	3,4	1,1	3,0	2,4	1,4	0,9	-0,4
- Herri admin. gastua kontsumoan	5,5	5,9	6,4	5,9	6,0	5,8	6,1
Kapital eraketa gordina	5,5	1,4	4,0	3,1	3,0	1,8	-2,2
Barne eskaria	4,4	1,9	3,9	3,1	2,5	1,9	0,0

Kanpo saldoaren ekarpena	-0,5	0,0	-0,3	-0,1	-0,1	-0,2	0,4
Esportazioak	7,6	4,5	7,1	7,0	9,1	6,1	-3,8
Inportazioak	7,6	4,2	7,2	6,6	8,4	6,0	-4,2
BPG (m.p.)	4,1	2,0	3,8	3,2	2,5	1,8	0,4
Lehen arloa	9,8	-0,2	14,9	5,6	0,2	-6,0	-1,2
Industria	4,0	0,2	2,2	1,7	1,4	0,5	-2,8
Eraikuntza	4,6	-0,1	3,3	2,3	1,1	-1,0	-2,9
Zerbitzuak	4,2	3,3	4,6	3,9	3,4	3,2	2,5
Balio erantsi gordina	4,2	2,0	3,9	3,2	2,6	1,9	0,5
Ekoizkinen zerga garbiak	3,4	1,5	3,1	3,3	2,0	0,7	-0,1

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Ekoizpen jarduera

Lehen arloak okertzera egin zuen nabarmen iazko bigarren seihilekoan eta hirugarren hiruhilabeteko %-6,0ko jaitsierari urritik abendura bitarteko epealdian jasotako %-1,2ko tasa negatiboak jarraitu zion. Estimazio horien arabera, nekazaritza eta arrantzak %-0,2ko tasa izan zuten 2008ko batez bestean.

Industriak, berriz, moteltzeko joera areagotu zuen 2008ko laugarren hiruhilekoan eta %-2,8ko beherakada jaso zuen epealdi horretan. Datu horrek %0,2an kokatzen du industriaren balio erantsiaren hazkundera 2008. urte osorako, 2007an lortutako %4,0aren oso azpitik. Industriaren balio erantsiak erakutsi duen narriadura larria bat dator 2008ko azken hilabeteetan industria produkziozko indizeak erakutsi duen bilakaerarekin. Izan ere, IPI orokorrak galgarik gabeko erorketa nozitu zuen urritik abendura bitarteko hilabeteetan eta krisiaren alderdirik larriena erakutsi zuen. Bilakaera ezkorrena izan zuten adarrak kontsumorako ondasunak, bereziki kontsumo iraunkorreko ondasunak, eta bitarteko ondasunak izan ziren. Hazkundera lortu zuen atal bakarra energia izan zen, hiruhilabete horretako hiru hilabeteetan hazkunde tasa positiboak lortu zituelako. Analisia IPIren adarretan fokatzen bada, okertzea eragin zuten industria atalak egurgintza, kautxua eta plastikoa, eta metalurgia eta artikulua metalikoak izan zirela ondorioztatzen da. Txanponaren aurkian, baina narriadura orokorra konpentsatzeko behar beste indarrak gabe, petrolioaren fintzea, ehungintza eta jantzigintza, eta garraio materiala kokatu ziren.



Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak egiten duen enpresarien iritzien gaineko inkestaren datuek industriaren egoera larria egiaztatzen dute. Industria giroaren indizeak atzerakada handia izan zuen 2008ko laugarren hiruhilekoan eta -38,3an kokatu zen batez beste.

Hilabete okerreña abendua izan zen, -49,2ko balioa jaso zuelarik. Maila hori 1993. urtetik hona inoiz jaso den negatiboa da. Datu okerragoak industriaren arlo guztietan jaso dira, baina garrantzitsuenak kontsumorako eta bitarteko ondasunetan gertatu diren beherakadak izan dira. Bi multzo horietan, eskari zorroaren gaineko igurikimenak eta, horren ondorioz, ekoizpenaren joeraz duten iritziak gero eta ezkorragoak ziren 2008. urtea aurrera zihoan neurrian, baina bereziki urteko azken hiruhilabetean.


Eraikuntzak %-0,1eko hazkunde tasa negatiboa jaso zuen 2008. urteko batez bestean. Eraitza hori hamabi hilabete lehenago lortu zuenarekin (%4,6) alderatzen bada, agerian gelditzen da arlo hori izan dela atzeraldiaren eragin kaltegarria gehien nozitu duena. 2008ko azken hiruhilekoan, sektore horrek %-2,9ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen. Eraikuntzaren adierazleek sektorea pairatzen ari den zuzenketaren seinaleak bidaltzen dituzte. EAEn 2008ko laugarren hiruhilekoan egin ziren higiezinen salmentak, Etxebizitza Ministerioaren datuen arabera, %-20,5 egin zuen behera. Etxebizitzaren eskariak erakutsi zuen ahultasunak ia ez zuen eraginik izan prezioetan, %-0,31 baino ez baitziren merkatu. Doikuntza horiek handiagoak dira bigarren eskuko etxebizitzetan berrietan baino.

Lanetarako lizitazio ofiziala %-3,4 jaitsi zen urte arteko tasan, unean uneko prezioetan eta 2008ko urte osoan. Atalka aztertuta, beherakada handiena ingeniari-tza zibileko lanetan gauzatu zen, eraikinak egiteko lizitazioak gehikuntza bizia lortu zuen bitartean. Kontratatzaileraren arabera, lurralde erakundeek obra zibila bultzatzeko egin zuten ahalegina azpimarratu behar da.


2008ko laugarren hiruhilekoan hazi zen sektore bakarra zerbitzuena izan zen, %2,5eko tasarekin. Aurreko hiruhilekoetan baino askoz gutxiago hazi zen, baina urteko batez bestean %3,3ko gehikuntza tasa lortu zuen. Tasa hori garrantzitsua da eta 2008. urteko sektore dinamikoena eta EAEko ekonomiaren bultzagile nagusia izan zela adierazten du. Bereiziki azpimarragarria da merkaturatzen ez diren zerbitzuek izan zuten bilakaera bikaina, iazko azken hiru hilabeteetan %7,1 hazi zirelako, 2008ko urte osoan %7,3ko tasa lortuta.




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	20087	2007	2008			
			IV	I	II	III	IV
Industria							
Balio erantsi gordina	4,0	0,2	2,2	1,7	1,4	0,5	-2,8
Industria produkzioaren indizea (*)	4,1	-2,1	2,4	0,8	-1,1	-3,0	-5,0
Industria giroaren indizea	3,1	-14,7	-1,5	-2,6	-5,0	-13,1	-38,3
Ekoizteko ahalmenaren erabilera (%)	82,1	82,6	82,0	84,0	83,8	81,0	81,4
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,3	-0,4	2,6	0,4	-0,1	-0,5	-1,2
Eraikuntza							
Balio erantsi gordina	4,6	-0,1	3,3	2,3	1,1	-1,0	-2,9
Eskainitako etxebizitzak	14,1	31,1	22,1	34,7	36,1	33,7	21,4
Obra berriko baimenak	4,2	-35,3	-0,9	-43,4	-35,1	-29,6	-32,0
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	1,1	-4,1	0,3	-0,2	-1,4	-6,0	-8,8
Zerbitzuak							
Balio erantsi gordina	4,2	3,3	4,6	3,9	3,4	3,2	2,5
Hegazkinen bidezko trafikoa	11,1	-4,7	9,7	11,9	-3,8	-10,8	-16,1
Hoteletan igarotako gualdiak	3,0	-3,2	-0,6	8,6	-8,8	-5,8	-6,9
Hoteletako okupazioa	46,6	43,9	43,3	38,5	45,1	53,5	38,4
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,2	2,4	3,2	3,0	2,8	2,2	1,6
Enplegua (barne merkataritza indizea)	2,7	0,2	2,8	1,2	0,8	0,4	-1,4

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Oficemen eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Merkatuko zerbitzuak gehiago apaldu ziren iazko azken laurdenean eta %1,6ko hazkunde tasa lortu laugarren hiruhilekoan, urteko batez bestea %2,5ean kokatu zutelarik. Zerbitzuen bilakaeraz eskura dauden abaguneko adierazleek moteltzeko joera bizia erakutsi zuten urriaren eta abenduaren arteko epealdian. Hain zuzen ere, barne merkataritzako indizeak, termino errealetan eta egutegiaren eragina zuzenduta, %-10,0 egin zuen atzera iazko laugarren hiruhilekoan 2007ko hilabete berberen aldean. Moteltzeko joera bizia txikizkako salmentan eta, bereziki, handizkakoan gertatu zen. Turismoari dagokionez, hotelen inkestatik eratortzen diren datuek jardueraren geldotasuna adierazten dute. Hain zuzen ere, EAEko hoteletako eta ostatueta betetze maila %38,4an kokatu zen iazko azken hiru hilabeteetan, urteko azken hiruhileko batentzat azken hamahiru urteetan jaso den balio txikiena delarik. Okerragotzearen beste adierazle esanguratsu bat aireportuetatik ibilitako bidaiarien kopuruarena da. Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera, urritik abendura bitarteko epealdian %-16,0aren inguruko beherakada jaso zen EAEko aireportuetan. Beraz, zerbitzuak ere gaur eguneko ekonomia atzeraldiaren ondorioak nozitzen ari dira eta lan merkatuaren datuek hirugarren arloan ere jarduera moteltzen ari dela agerian uzten dute, lanpostu berriak sortzeko zailtasun handiak baitituzte.

Eskariaren osagaiak

Azken kontsumoan eginiko gastuak nabarmen moteldu zen laugarren hiruhilekoan eta %0,9ra mugatu zuen bere hazkundera, urte osorako emaitza %2,0ra iritsi zen bitartean. Moteltzeko norabidea eragin duen agregatua familien kontsumoa izan da. Aitzitik, administrazio publikoen gastuak berriro egin zuen gora eta barne eskariaren osagairik dinamikoena da, eskari pribatuak indarra galdu duen une batean. Horiek horrela izanda, iazko azken hiru hilabeteetan, kontsumo publikoa %6,1 hazi zen eta 2008. urte osorako batez besteko hazkunde tasa %5,9 izan zela estimatu da.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako familien kontsumoak hainbat hiruhilabete lehenago hasi zen moteltzeari jarraipena eman zion eta 2008ko laugarren hiruhilekoan %-0,4ko beherakada jaso zuen. Urte osoko batez bestean, hazkunde tasa %1,1ean kokatu zen. Datu hori apal samarra da 2007an lortutako %3,4arekin alderatzen bada. Aldagai horretaz iazko azken hilabeteetan argitaratu ziren abaguneko adierazleek sendotasuna galduz joan zela agerian uzten dute. Lan merkatuaren narriadurak eta familiek bizi duten ekonomia eta finantza testuinguru ziurgabetasunez beteak beraien kontsumoa murriztera behartu dute. Automobilien matrikulazioak eta turismoarekin lotura duten adierazle guztiek aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten 2008ko azken hilabeteetan. Beste aldetik, kontsumitzailearen konfiantza indizea 71,0 balioan kokatu zen laugarren hiruhilekoan, azken hamabost urteko maila apalena delarik. EAEko kontsumitzaileen igurikimenean okertzea langabeziaren eta ekonomia orokorraren bilakaeraz duten ezkortasunean oinarritzen da. Testuinguru horretan, familiek erosketak handiak geroratzea erabaki dute. Bankuek eman dituzten kredituen bolumena nabarmen moteldu da eta 2008ko laugarren hiruhilekoan kredituen bidez emandako diru kopurua %6aren inguruan hazi zen, 2007. urteko epe berean jaso zen tasaren erdia baino gutxiago delarik.


Kapitaleko eraketa gordinak beherakada garrantzitsua nozitu zuen eta %-2,2ko hazkunde tasa negatiboa jaso laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarena baino lau puntu gutxiago. 2008ko urte osoan, enpresarien inbertsioa %1,4 hazi zen, 2007an baino lau puntu inguru gutxiago. Inbertsioaren osagai guztiek, hots, eraikuntzan eginikoak zein ekipamendurako ondasunetan eginikoak, agregatuaren egoera txarra baieztatu zuten.

Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


6. irudia

Kontsumo pribatua


Kontsumo publikoa




Kapital eraketa gordina





Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

EAEko enpresariak mesfidantzaz eta ezkortasunaz hartzen dute gaur eguneko eta etorkizun hurbileko egoera. Igurikimen ezkorragoak sortzen lagundu duen gakoetako bat kredituen murrizketa da, enpresen inbertsioak aurrera eramateko oztopo handia baita. Arazo horri gehitu behar zaizkio lehenago adostutako eskariak bertan behera geratu izana eta berankortasuneko

indizeak gorakada handia jaso izana, ekonomia eragileen artean konfiantza sortzen ez baitute laguntzen.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2007	2008			
			IV	I	II	III	IV
Kontsumo pribatua							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	3,4	1,1	3,0	2,4	1,4	0,9	-0,4
BMI txikizkaria	1,5	-2,2	0,3	-1,3	-2,1	0,1	-5,4
Azalera handiko merkataritza indizea(*)	-0,7	-4,5	-2,4	-3,7	-4,5	-4,9	-4,8
Landunak txikizkarian	2,7	0,1	2,9	1,0	0,7	0,3	-1,4
Automobilien matrikulazioa (*)	-4,0	-20,1	-6,8	-12,9	-17,4	-24,2	-25,8
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	96,0	79,5	88,0	92,0	80,0	75,0	71,0
Kapital eraketa gordina							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	5,5	1,4	4,0	3,1	3,0	1,8	-2,2
IPI ekipamendua EAE (*)	7,4	-0,5	3,4	1,0	0,1	-1,1	-1,9
IPI ekipamendua Estatua (*)	5,9	-4,5	3,6	1,4	-0,7	-3,0	-15,8
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	14,5	-1,1	31,0	18,9	22,5	-8,2	-26,8
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-2,9	-37,4	-11,8	-24,8	-33,3	-43,3	-48,2

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna



2008ko azken hilabeteetan, finantza zurrunbiloaren eragin kaltegarria ekonomiaren jardueran areagotu egin zen nazioarteko merkataritzaren atzerakada handiaren ondorioz. Lan merkatuen egoera zailak eta garatutako herrialdeetako eskariaren ahultasunak merkataritzaren hedapenerako testuinguru ezegokiago bat sortu zuten. Hori horrela bazen ere, munduko merkataritza %6,2 areagotu zen urteko batez bestean, Munduko Bankuak egin dituen lehen estimazioen arabera.

Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak


7. Irudia

ELGE


Europar Batasuna



AEB



Japonia



Iturria: ELGE, Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila eta Japoniako Finantza Ministerioa.

Ekonomia aurreratueta, konfiantzaren amiltzeak eta igurikimene okertzeak barne eskariak kaltetu zituzten, bereziki urteko azken hilabeteetan. Hori dela eta, garatutako ekonomia nagusiek, batez ere Europakoek, esportazioak nabarmen gutxitu zituzten. Joera hori 2009ko lehen hilabeteetara ere luzatu da. Dena dela, merkataritzako krisia Japonian izan zen benetan larria. Herrialde horretarako merkatu nagusiak diren ekonomietan salmentak murriztu ziren eta yenaren balio irabaziak ez zuen esportazioen garapenean lagundu. Beraz, esportazioek moteltzeko joera bizia hartu zuten 2008ko urrian eta hilabetez hilabete areagotuz joan da, 2009ko urtarilean %45etik gorako jaitsiera jaso arte. Hain zuzen ere, merkataritza balantza positiboa izan ohi da Japoniarentzat Europar Batasuna eta Amerikako Estatu Batuak bezalako herrialdeekiko salerosketetan, baina une hauetan hondoratuta dago eta, lehenengo aldiz hiru urtean, zenbaki gorritan kokatu da Asiako gainontzeko herrialdeekiko.

Nazioarteko merkataritzaren geldotasunak kolpe latza izan da ekonomiaren oinarria atzerriko salmentetan duten herrialdeentzat. Esate baterako, Txina kaltetuta atera zen AEBetako eta Europako barne eskarien ahultasunetik, herrialde horretako salmenta guztien %40aren ingurua bi merkatu horietan metatzen baitira. 2007. urtean bigarren potentzia esportatzailea izan zen eta 2008an Alemaniaren tokia bereganatzeko aukera garbia zegoela uste bazen ere, larri dabil gaur. 2008ko lehen hamaika hilabeteetan, Txinako salmentak atzerrian %20tik gorako tasatan hazi ziren, baina azarotik aurrera ahultzen hasi ziren eta 2009ko otsailean %27 baino gehiago murriztu ziren. Hala ere, 2008ko batez bestean esportazioak %18 areagotu ziren, tasa handia delarik, nahiz eta azken zazpi urteko apalena den.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

9. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-IV
	2007	2008	2008					
			IV	I	II	III	IV	
ESPORTAZIOAK								
Guztira	14,6	6,7	13,6	5,0	19,6	13,8	-10,2	4.458.435
Ez energetikoak	14,7	5,5	13,5	3,1	16,2	14,6	-10,2	4.166.617
INPORTAZIOAK								
Guztira	8,2	7,1	13,6	18,5	16,5	20,0	-22,4	3.995.582
Ez energetikoak	14,1	-0,8	12,2	7,1	4,9	6,4	-19,3	2.873.514

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2008koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Nazioarteko merkataritzaren moteltze orokorrak EAEko ekonomiari ere kalte egin zion. 2008ko hirugarren hiruhilabetea arte EAEko ekoizkinen salmentak joera positiboa eta gorakorra erakutsi zuen arren, eta egin zizkieten eskarietan aldakuntza gutxi hauteman bazuen ere, laugarren hiruhilabeteko bilakaera oso bestelakoa izan zen. Izan ere, hala esportazioek nola inportazioek, guztiak zein energiaz bestelakoek, beherakada garrantzitsuak jaso zituzten. Iazko azken hilabeteetan nozitu zuten atzerakada handia izan zen arren, urteko batez besteak hazkunde positiboa erakutsi zuen. Ez zen iritsi aurreko bi urteetako mailetara, baina oraindik tamaina handikoa izan zen.

Zehazkiago adierazita, atzerrira bideratutako esportazioak, termino nominaletan, 19.844,4 milioi euroetara iritsi ziren guztira 2008. urtean, aurreko urteko zenbatekoa %6,7an gainditzen duelarik. Inportazioak, berriz, %7,1 areagotu ziren eta 20.000 milioi euroak gainditu zituzten.


Beraz, 214 milioi euroko defizit txikia sortu zen. Energiaz bestelako merkataritzak bilakaera motelagoa erakutsi zuen. Esportazioak gero eta gutxiago hazi ziren eta inportazioak behera egitera iritsi ziren %-0,8ko tasa jasota, 1996. urtetik inoiz lortu den emaitza okerrean delarik. Hala eta guztiz ere, energiaz bestelako saldoa serie osoan ikusi den handiena izan zen, 5.100 milioi euroko superabita lortuta.

Munduko ekonomiaren hazkunderako dauden aurreikuspen txarrek eta salerosketetan EAEko bazkideak diren herrialdeek pairatzen duten atzeraldiak berankortasuna areagotuko dute eta eskari batzuk bertan behera geratuko dira 2009. urtean zehar. Beraz, ez da harritzekoa etorkizunari buruzko igurikimenek salmenten suspertzea ez aurreikustea. Horrela dago jasota EAEko industriaren eskari zorroaren bilakaeran eta industria giroaren indizean, 2008ko lehen hiruhilabetetik bertatik balio negatiboak izan zituztelako eta urtea aurrera zihuan neurrian datuak gero eta okerragoak izan zirelako.


Esportazioak arantzel atalen arabera aztertzen badira, iazko azken hiruhilabeteko okertzeak urte osoko bilakaera baldintzatu zuen. Izan ere, 2008ko laugarren hiruhilekoan, atal guztiek, salbuespen bakarrak metal arruntak eta beren manufakturak eta papera izan zirelarik, tasa negatiboetara igaro ziren. Lehenengo aldia zen esportazioek halako atzerakada gogorra jasotzen zutela. Urteko batez bestean moteltzeko joera hori ez zen horren nabarmena izan eta hazkunde negatiboak kautxuak, garraio materialak eta bestelako manufakturek bakarrik jaso zituzten. Azpimarratzekoa izan zen energiaren eta metal arrunten bilakaera ona, hurrenez hurren %21,3 eta %16,7 lortu zituztelako. Neurri txikiagoan, paperak eta makinak eta tresnek ere hazkunde tasa positiboak jaso zituzten, baina ez ziren iritsi aurreko urtean lortu zituzten mailetara.

EAEko barne eskariaren ahultasunak inportazioen norabidea bat-batean irauli zuen eta ia atal guztietan beherakadak jaso zituzten, hala urteko azken hilabeteetako bilakaeran nola urte osoko balantzean. Automobilaren erosketaren portaera txarrak, 2008an %12aren inguruan murriztu baitzen, ekipamendurako ondasunen bilakaera kaltetu eta baldintzatu zuen, bost urteko epean lehen atzeraldia jaso baitzuen. Metal arruntek eta beren manufakturek, pisu handienetako beste atalak, antzeko norabidea hartu zuen eta behera egin zuen lehen aldiz sei urteko epealdian. Urteko batez bestean hazkunde tasa positiboak lortu zituzten bakarrak nekazaritzako ekoizkinak, energiako arloa eta produktu kimikoak izan ziren, baina azken honek bakarrik jaso zituen tasa positiboak hiruhileko guztietan.


Energiako ondasunen esportazioak




Energiako ondasunen inportazioak




Ekipamendurako ondasunen esportazioak




Ekipamendurako ondasunen inportazioak



Metal arrunten eta beren manuf. esportazioak



Metal arrunten eta beren manuf. inportazioak



Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2007	2008	2007	2008				2008-IV
			IV	I	II	III	IV	
Esportazioak								
ELGE	10,2	3,1	6,2	0,3	14,2	10,2	-11,9	3.133.555
Eurogunea	10,1	5,4	3,0	0,7	17,9	13,5	-10,5	2.214.248
Europako kide berriak	28,7	5,5	27,8	26,6	8,7	3,8	-12,7	215.270
Europar Batasuna 27	11,0	3,2	6,1	2,7	15,5	9,6	-14,7	2.675.702
Errusia	44,2	53,5	9,9	54,7	70,2	56,2	29,9	41.521
Txina	20,6	38,1	29,7	44,2	55,6	53,6	9,1	96.129
Brasil	46,2	14,5	-11,4	16,4	17,4	4,7	19,1	88.352
Inportazioak								
ELGE	13,6	-2,3	18,0	7,7	6,2	4,2	-23,3	2.149.542
Eurogunea	15,7	-1,4	23,2	11,2	11,5	3,5	-26,4	1.581.549
Europako kide berriak	14,8	7,6	14,4	2,9	15,8	23,5	-8,9	93.657
Europar Batasuna 27	12,0	-2,8	16,8	7,3	7,7	3,6	-25,8	1.862.164
Errusia	6,9	4,7	-10,8	11,0	-2,0	46,2	-36,8	64.471
Txina	45,7	-2,4	29,1	20,5	1,0	-13,3	-11,9	266.100
Brasil	-15,9	0,7	-64,4	0,1	-21,7	25,1	4,8	20.876

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2008. urteko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Geografiaren ikuspegitik, energiakoak ez ziren esportazioek ohiko merkatuetan moteldu zuten erritmoa, baina indar handiz areagotu ziren gainontzeko herrialdeetan. Frantziara eta Alemaniara zuzendutako esportazioak gutxiago hazi ziren eta Britainia Handian eta Italian gutxitu ziren. Horren ondorioz, Europar Batasunera bideratutako salmentak %3,2 baino ez ziren hazi. Aitzitik, AEBetara, Japoniara, Errusiara eta Txinara bidalitakoak %19,1, %43,8, %53,5 eta %38,1 igo ziren, hurrenez hurren.

Energiaz bestelako esportazioetan bezala, inportazioek ere aldaketak hauteman zituzten erosketen herrialdeetan, nahiz eta kasu honetan aldakuntzak eta beherakadak askoz ere garrantzitsuagoak izan ziren. Zehazkiago adierazita, Europar Batasuneko herrialdeetatik ekarritako energiaren bestelako inportazioak %-2,8 murriztu ziren, batez ere Britainia Handian, Italian eta Alemanian gutxiago erosi zelako. Aitzitik, jatorria ELGEtik kanpoko herrialdeetan zuten erosketek bilakaera positiboa lortu zuten. Lehenengo aldia da hamabost urtean inportazio ez-energetikoen horrelako jaitsiera pairatzen dutela, EAEko ohiko bazkideei horren zuzenean eragiten diona.

Lan merkatua

Ekonomia jardueraren ahultasunak eragin handia izan zuen lan merkatuaren bilakaeran. Izan ere, epealdi horretan enpleguak nabarmen egin zuen okerrera eta langabezia tasa igo zen. Lan merkatuaren narriadura ageriagoan geratu zen laugarren hiruhilekoan eta pentsatzekoa da aurtengo lehen erdian are gehiago okertuko dela, finantza baldintzen hobekuntzak eta inbertsio publiko handiagoez ekonomia jarduerari eta eskariari ekarriko dizkieten onuren esperoan.

ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2007		2008		
			IV	I	II	III	IV
Landunak (BJA inkesta)	1,1	0,3	0,3	1,0	1,9	0,1	-1,9
Lanpostuak (hiruhilekako kontuak)	2,8	1,1	2,7	2,0	1,6	0,7	-0,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,7	1,2	2,5	2,1	1,8	1,3	-0,3
Langabeak (BJA inkesta)	-19,7	16,0	-8,5	-1,5	4,7	15,3	47,8
Langabeak (INEM)	-6,4	11,8	-2,6	2,3	8,5	10,2	27,1
Langabezia tasa (BJA inkesta)	%3,3	%3,8	%3,1	%3,3	%3,5	%3,5	%4,6

Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INEM.

Enpleguaren nondik norakoari dagokionez, aurreko hiruhilekoan bezala, estatistika guztiek beheranzko joera garbia erakutsi zuten. Orobat, guztiek adierazi zuten lanpostuak galdu zirela iazko azken hiruhilekoan. Horiek horrela, 2008aren amaieran enplegua murriztu zen, %-0,1 hiruhilabetearen behin argitaratzen diren kontu ekonomikoen arabera eta %-1,9 BJA inkestaren arabera. Bi mutur horien artean, Gizarte Segurantzako afiliazioaren estatistika kokatu zen, beherakada %-0,3ra mugatuta. Erregistro horren azken datuen arabera, otsailean %-2,5 jaitsi zen. Horrek adierazten du enpleguaren galera areagotu dela aurtengo lehen bi hilabeteetan eta oraingoz ez da hautematen inolako aldaketarik joera horretan.


Eustatek hiruhilabetearen behin argitaratzen dituen kontu ekonomikoen arabera, BPGren gehikuntzak ez zuen horrelako tasa apalik jaso (%0,4) 1993ko krisitik. Garai hartakoa da jaso zen azken enplegu galera, iazko laugarren hiruhilekoa iritsi zen arte (%-0,1). Bi aldagai horien konbinaketaz, ekoizkortasunaren igoera erdira murriztu zen aurreko hiruhilabetearen aldean, %1,1 izatetik %0,5era jaitsi baitzen. Aldagai horren hazkundera, neurri handi batean,

eraikuntzaren emaitzetan oinarritu zen, arlo horretako ekoizkortasuna galdu zuen enpleguari esker igo zelako.


Enplegu estatistiken bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

9. irudia


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzaren eta INE.

Enpleguaren jaitsiera, ekonomia arloka aztertuta, batez ere eraikuntzan eta industrian gauzatu zen, doikuntza gogor baten ondoren, balio negatiboak jaso zituztelako. Zerbitzuek, berriz, moteltzeko joera erakutsi zuten. Eraikuntzari dagokionez, lanpostuetan egin duten doikuntza higiezinaren merkatuaren krisiaren ondorioa da, finantzaziorako baldintzak ez direlako hobetu eta eroslerik aurkitzen ez duten gehiegizko etxebizitza dagoelako merkatuan. Industriak ere

enplegua murriztu zuen, ekonomiaren etorkizunaz zalantza asko dagoelako eta eskariak beherakada garrantzitsua izan duelako. Hala eta guztiz ere, industriak galdutako enplegua ez zen bereziki handia izan, kontuan hartzen bada sektore horretako balio erantsiak beherakada larriagoa (%-2,8) jasan zuela. Portaera horrek pentsarazten du enpresek nahiago izan dutela oraingoz langileen kopuruei atxiki, ekonomiaren susperraldia etorri bitartean, nahiz eta horrek ekoizkortasuneko galerak sortzen dituen. Azkenik, zerbitzuek berriro gutxitu zuten enpleguaren hazkundea eta 2002. urtetik aurrera inoiz lortu duten gehikuntza tasa txikiena (%1,6) jaso zuten.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

12. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2007		2008		
			IV	I	II	III	IV
Enplegua guztira	2,8	1,1	2,7	2,0	1,6	0,7	-0,1
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	1,3	0,9	1,1	1,2	0,9	1,1	0,5
Enplegua lehen arloan	-4,0	1,7	0,0	2,8	2,3	0,8	1,1
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	14,4	-1,9	14,8	2,7	-2,1	-6,7	-2,3
Enplegua industrian	3,3	-0,4	2,6	0,4	-0,1	-0,5	-1,2
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	0,7	0,6	-0,4	1,3	1,5	1,0	-1,6
Enplegua eraikuntzan	1,1	-4,1	0,3	-0,2	-1,4	-6,0	-8,8
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	3,5	4,2	3,0	2,5	2,5	5,3	6,5
Enplegua zerbitzuetan	3,2	2,4	3,2	3,0	2,8	2,2	1,6
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	1,0	0,9	1,4	0,9	0,6	1,0	0,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

16 eta 64 urte bitarteko biztanleria landunen analisiak adierazten du, BJA inkestaren datuetan oinarrituta, emakumeen enplegu tasa berriro igo dela (bi hamarren azken hiruhilekoan eta puntu erdi bat azken urtean) eta 59,1ean kokatu dela, gaur egun bizi den enplegu galera bereziki gizonengan izan duelako eragina, beraiek baitira industrian eta eraikuntzan gehien lan egiten dutenak. Hala eta guztiz ere, enplegu asko galtzeko testuinguru honetan, oso litekeena da joera horri eustea ezinezkoa izatea eta 2009. urtean krisiak emakumeek betetzen dituzten lanpostuetan ere kalte egitea.

Enpleguaren bilakaera txarra adin talde guztietan ere hauteman da. Berriro izan dira gazteenak lan merkatuaren narriadura gehien nozitu dutenak. Hain zuzen ere, gazte landunen kopurua %-13,5 jaitsi zen eta beraien enplegua tasak beherakada garrantzitsua jaso zuen. Aldi berean, adin nagusieneko biztanleriaren enplegu tasak ez zuen aldaketarik izan eta ia ezinezkoa izango

da talde horretarako Lisboan ezarri zen helburua lortzea. Horiek horrela, eta kontuan hartuta bitarteko taldeak ere ez zuela inolako hobekuntzarik izan, enplegu tasa orokorra nabarmen murriztu zen, hala 16 urtetik gorako biztanlerian (13. taula) nola 16 eta 64 urte bitartekoan (%67,9tik %67,0ra), azken hau baita Lisboako Estrategian erabiltzen dena.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

13. TAULA

Ehunekoa

	2007	2008	2007	2008			
			IV	I	II	III	IV
Partaidetza tasa guztira	54,6	55,0	55,1	55,1	55,1	55,1	54,9
- Gizonak	65,0	64,3	64,9	64,6	64,5	64,5	63,4
- Emakumeak	44,9	46,3	45,8	46,1	46,2	46,2	46,8
- 16 urtetik 24ra	33,5	34,6	33,9	35,8	35,6	35,5	31,6
- 25 urtetik 44ra	85,9	86,5	86,4	85,9	86,4	86,4	87,1
- 45 urte eta gehiago	36,7	37,4	37,3	37,6	37,3	37,4	37,3
Enplegu tasa guztira	52,9	53,0	53,4	53,3	53,2	53,1	52,3
- Gizonak	63,0	62,1	63,1	62,8	62,3	62,4	60,8
- Emakumeak	43,3	44,4	44,2	44,3	44,5	44,4	44,4
- 16 urtetik 24ra	30,9	31,2	31,5	32,6	32,1	32,2	27,9
- 25 urtetik 44ra	82,8	82,9	83,2	82,8	83,1	83,3	82,6
- 45 urte eta gehiago	36,0	36,5	36,7	36,9	36,6	36,4	36,3
Langabezia tasa guztira	3,3	3,8	3,1	3,3	3,5	3,5	4,6
- Gizonak	3,0	3,4	2,8	2,9	3,5	3,3	4,1
- Emakumeak	3,6	4,2	3,6	4,0	3,6	3,8	5,3
- 16 urtetik 24ra	7,6	9,9	7,1	8,8	9,9	9,2	11,8
- 25 urtetik 44ra	3,7	4,1	3,7	3,7	3,8	3,6	5,2
- 45 urte eta gehiago	1,8	2,2	1,5	1,9	2,0	2,5	2,6


Iturria: BJA (Eustat).

Enpleguaren beherakadarekin batera, lan merkatuan parte hartzen duen biztanleria ere gutxitu zen (%-0,4), hiru hileko askotan igotzen egon ondoren. Portaera aldaketa horren atzean, lana bilatzen dutenengan nolabaiteko etsipena errotzen ari dela pentsa daiteke. Oraingoan, gizonen artean bakarrik hauteman da joera berri hori, %-2,3 gutxitu baita parte hartzaileen kopurua, emakumeen artean alderantzizko joera baitago eta %2,3 areagotu da. Bi bilakaeren ondorioz, partaidetza tasa orokorra bi hamarren jaitsi da aurreko hiruhilabetearen aldean (%55,1etik %54,9ra).

Lan eskua laugarren hiruhilekoan igo ez zenez, epealdi horretan gertatu zen langabeziaren gorakada garrantzitsua (%47,8) enpleguaren galeraren ondorioa bakarrik izan zen eta ez, aurreko hiruhilekoetan gertatu zen bezala, gero eta eskatzaile gehiago zegoelako. Langabeziaren gorakada larriagoa izan zen, alde batetik, gazteen artean (%51,2ko igoera jaso zuen) eta, beste aldetik, emakumeen artean (%51,3). Horren ondorioz, bi sexuen langabezia tasen arteko aldea nabarmen zabaldu zen eta puntu batetik gora izatera iritsi da (%5,3 emakumeen artean eta %4,1 gizonen artean).

Langabezia tasaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Bigarren hiruhilekoz jarraian, estatistikek estimatu duten langabeziaren hazkundera INEMek jasotakoa baino handiagoa izan zen, nahiz eta azken erakunde honek oraindik lanik gabeko pertsonen kopurua altuagoa dela adierazten duen. Beste aldetik, enplegua erregulatzeko dosierren eraginpean dauden langileen kopurua ia hirukoiztu zen azken urtean. Langile horiek bereziki metalurgiakoak eta automobilgintzakoak dira, baina baita eraikuntzakoak ere, azken hauek neurri txikiagoan. Azken hiruhilekoan nozitu ziren bereziki krisiaren ondorioak. Orain arte gehien erabili den dossier mota jarduera behin-behingo etetekoa izan da eta gutxi samar dira kontratuak bertan behera uztekoak diren dosierra pairatzen duten langileak. Hala eta guztiz ere, krisia gaiztotzen den heinean pentsatzekoa da behin-behineko eteteak behin-betiko bihurtuko direla.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

14.TAULA

	2007	2008	2008			
			I	II	III	IV
Dosierren kopurua	282	496	46	66	43	341
Eragindako langileak	4.815	12.794	786	1.106	723	10.179
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	17	108	1	19	6	82
- Behin-behineko etetea	3.856	11.216	410	789	464	9.553
- Kontratua amaitzekoa	942	1.470	375	298	253	544

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila.

Gaur egun enplegu asko galdu bada ere, BJA inkestaren datuen arabera, ez da aldaketa handirik gertatu aldibaterakotasuneko tasan, aurreko urteko hiruhilabete beraren aldean hamarren bakar bat gutxiti baita (%20,2tik %20,1era). Hala ere, Estatuaren datuei dagokienez, INEren BAI inkesta erabilia, aldibaterakotasuneko tasa jaitsi egin da, desagertu diren lanpostuak batez ere eraikuntzan eta industrian behin-behineko kontratu zuten langileenak zirelako. Hain zuzen ere, bi sektore horiek bilakaera negatiboagoa izan dute Estatuan Euskadin baino.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

15. TAULA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2007	2008	2004	2005	2006	2007	2008
GUZTIRA	836.459	793.170	6,4	1,9	3,1	4,1	-5,2
Lanaldi osoko mugagabeak	29.765	27.170	-1,0	3,6	9,4	31,3	-8,7
Obra edo zerbitzukoak	194.144	171.954	4,2	-3,6	-0,1	0,7	-11,4
Abagunekoak	241.969	219.123	5,9	0,6	3,2	5,1	-9,4
Lanaldi laburrekoak	251.071	247.844	9,5	8,4	2,9	3,3	-1,3
Prestakuntzakoak (*)	8.916	7.756	6,4	-3,9	0,7	-4,2	-13,0
Besteak	110.594	119.323	7,1	2,2	8,8	4,8	7,9

(*) Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, INEMeko datuetan oinarrituta.

Azkenik, INEMen erregistratu diren kontratuak oso egokiak dira lan merkatuan gertatzen ari dena azaltzeko. Hain zuzen ere, sinatutako kontratuen kopurua %-5,2 jaitsi da. Halakorik ez da gertatu 2002. urtetik. Kontratu motaren arabera, guztiek, inolako salbuespenik gabe, urte arteko balio negatiboak jaso zituzten eta, oro har, bai aldi baterako kontratuek (%-5,2) nola kontratu mugagabeek (%6,0) beherakada garrantzitsuak izan zituzten. Azken horien artean, azpimarratzekoa da mugagabe berrien beheranzko joera, 2006. urtean bakarrik eten zena, urte hartako lan erreformaren ondorioz.

KONTRATU MUGAGABEEN BILAKAERA

16. TAULA

	2006		2007		2008	
Ohiko mugagabeak	12.906	1,61	21.177	2,53	20.272	2,56
Mugagabe berriak	9.472	1,18	8.301	0,99	6.664	0,84
Lanaldi osoko beste mugagabeak	293	0,04	287	0,03	234	0,03
Lanaldi osoko mugagabe guztiak	22.671	2,82	29.765	3,56	27.170	3,43
Lanaldi laburreko mugagabeak	10.909	1,36	14.373	1,72	14.331	1,81
Mugagabeak guztira	33.580	4,18	44.138	5,28	41.501	5,23
Kontratu berriak guztira	803.596	100,0	836.459	100,0	793.170	100,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, INEMeko datuetan oinarrituta.

Prezioak, kostuak eta soldatak


Prezioek 2008. urtean zehar izan zuten bilakaera aztertuta, agerian geratzen da urte hasieran igoerak handiak izan zirela (%4,1), 2007ko irailean hasi zen goranzko joerari jarraipena emanda, petrolioaren eta beste lehengai batzuen garestitze biziaren ondorioz, inoizko baliorik gorena jaso zutelako. Joera horrek uztaila arte iraun zuen. Hilabete horretan inflazioa %5,2ra iritsi zen. Harez geroztik, alderantzizko bilakaera hartu zuen eta urte arteko aldakuntza tasa oso bizi jaitsi zen, urte amaieran %1,9an kokatu arte. Bilakaera horren oinarrian, familien kontsumoaren ahultasuna eta aipatu diren lehengaien eta petrolioaren merkatze bizkorra daude, upela uztailan 150 dolarretan saldua izatetik 40 dolarretara jaitsi baitzen urte amaieran.

2009. urteak jarraipena eman dio 2008ko bigarren seihilabeteko joerari, hots, inflazioak beheranzko norabideari eutsi dio eta otsailean, argitaratu den azken hilabetea baita, urteko tasa %1,1ean zegoen. Tasa hori da estatistika hau 1979. urtea hasi zenetik inoiz jaso den baliorik apalena. Norabide horretan, gero eta indar gehiago hartu du eskariaren ahultasunak, petrolioak eta lehengaiak beren prezioak egonkortzeko zantzuak erakutsi dituzten bitartean. Inflazioaren beherakada nabarmenak Eurogunerarekiko aldea otsailean negatiboa izatea ahalbidetu zuen, lehenengo aldiz. Gogoratu behar da duela hilabete gutxi inflazio tarte puntua bat baino gehiago zela. Gaur egun, gehiegizko inflazioak sortzen zuen kezka bigarren plano batean geratu da eta, aitzitik, erakunde batzuek ohartarazten dute benetako arriskua deflazioa dela, baina hori gertatzeko aukerak oso urriak dira.


KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

11. irudia

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Azpiko inflazioaren azterketak deflazioan erortzeko arriskurik ez dagoela egiaztatzen du. Izan ere, elikagai freskoak eta energia ekoizkinak barne hartzen ez dituen adierazle horren aldakuntza indize orokorrarena baino leunagoa izan da eta %1,8ra moteldu zen, Europako Banku Zentralak ezarritako helburutik bi hamarren bakarrik beherago. Beraz, zaila ikusten da urte arteko aldakuntza tasa negatiboetara igarotzea.

Azpiko inflazioaren azterketa zehatzagoak erakusten du landutako elikagaiak eta industria ondasunak izan zirela gutxiago hazi izanaren erantzuleak. Zehazkiago adierazita, landutako elikagaien salneurria oso bizkor moteldu zen azken hiruhilekoan, hiru puntu eta sei hamarren jaitsita. Beraz, 2007ko udan hasi zen prezioen hazkunde neurrigabea zuzentzen hasi zen eta lehengaien nekazaritzako nazioarteko merkatuetan gertatzen ari den normalizazioa agerian geratu da. Industria ondasunak, berriz, azken hiruhilekoan gehikuntza tasa handiagoak jaso ondoren, urte hasieran hasi dira tasak gutxitzen eta balio negatiboak erakusten, nazioarteko lehiaren presio biziaren ondorioz eta lehenago ere aipatu den eskariaren ahultasunarengatik. Azkenik, azpiko inflazioaren osagai handienak, hots, zerbitzuek, lehiatik babestuago dauden arren, inflazioaren tentsioak gutxitu zituzten eta otsailean %3,5era murriztu beren prezioen hazkundera, hilabete askotan %4aren inguruan egon ondoren.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

17. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2007	2008	2008		2009	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazioa guztira (%100)	2,8	4,1	4,8	2,8	1,3	1,1
Azpiko inflazioa (%83,3)	2,8	3,2	3,5	2,9	1,8	1,5
KPI Landutako elikagaiak (%14,3)	4,0	6,6	7,3	3,7	2,1	0,3
KPI Industriako ondasunak (%29,3)	0,7	0,6	0,7	0,9	-0,7	-0,2
KPI Zerbitzuak (%39,7)	3,9	3,9	4,0	4,0	3,5	1,4
Hondarreko inflazioa (%16,7)	3,0	8,5	11,6	2,1	-2,4	-0,4
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,9)	4,2	5,0	5,5	2,8	2,2	0,2
KPI Energia (%8,8)	1,9	11,6	17,1	1,5	-6,5	-0,6

Iturria: INE.

Eskariaren ahultasunaz gain, petrolioarekin eta elikagaiekin lotura estuena duten prezioek ere inflazioaren nondik norakoa baldintzatzen dute. Hori dela eta, garraioaren eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak biltzen dituen atalaren salneurriak izan dira gehien apaldu direnak. Lehenengoak dira, neurri handienez, indize orokorraren moteltzea azaltzen dutenak, hirugarren hiruhilekoan %8,4 haztetik otsailean %-6,0ra igaro zirelako, petrolio gordinaren kotizazioa zeharo aldatu zelako. Honek ere eragina izan zuen etxebizitza taldearen indizean (%7,7tik %5,7ra jaitsi zen), berogailuaren gastuaren bidez. Ataltxo horretan kontuan hartu behar da, alde batetik, gasa merkatu zela, baina, beste aldetik, energia elektrikoa garestitu egin zela eta, horren ondorioz, lehenengoaren beherakada neurri handi batean konpentsatuta geratu zela. Elikagaien taldean, berriz, esnea eta ogia bezalako oinarritzko jakiak izan ziren igoera txikiagoak eragin zituztenak. Beste muturrean, irakaskuntza eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak bezalako taldeak nabarmendu behar dira berriro. Hala ere, azken datuek iradokitzen dutena kontuan hartuta, badirudi ostalaritzan ere hasiak direla eskariaren ahultasuna nabaritzen.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

18. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2007	2008	2008			2009
			II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	2,8	4,1	4,5	4,8	2,8	1,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,8	6,3	7,2	7,0	3,3	1,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	6,6	4,0	4,3	4,1	4,2	4,0
Jantziak eta oinetakoak	1,4	0,7	0,7	0,5	0,8	-1,7
Etxebizitza	3,6	6,4	6,0	7,7	7,2	5,7
Etxeko hornidura	3,5	3,0	2,8	2,7	3,1	2,1
Medikuntza	-0,5	-0,1	-0,1	-0,1	0,3	-0,2
Garraioa	2,3	5,7	8,2	8,4	-0,9	-6,0
Komunikazioak	0,2	0,0	-0,1	-0,1	-0,1	-0,4
Aisia eta kultura	-0,9	0,3	-0,8	0,9	1,2	1,2
Irakaskuntza	4,5	4,7	4,6	4,6	5,1	4,9
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	4,6	4,6	4,7	4,6	3,3
Besteak	3,2	3,4	3,3	3,7	3,9	3,0

Iturria: INE.


IPRIk hazkunde tasa gutxitzen jarraitu zuen. Joera hori iazko uztailean hasi zen. Hilabete horretan, baliorik gorena jaso zuen (%9,6), baina urte amaieran hazkunde tasa %1,9ra mugatu zuen. Aurtengo lehen hilabeteetan, norabide berean segitu du eta dagoeneko balio negatibotan dago kokatuta (urtarrilean, %-1,0 jaso zuen), 2004ko hasieratik berriro gertatu ez dena. Beherakadaren arrazoi nagusia energiako ekoizkinen bilakaera da, petrolioaren salneurriaren gorabeherak baldintzatua, baina baita bitarteko ondasunena ere, barne eskariaren geldotasunak eta lehengaien prezioek eraginda. Aurreko guztiari erantsi behar zaio kontsumorako ondasunen bilakaera ere, zeren eta hala kontsumo iragankorreko ondasunek nola kontsumo iraunkorrekoek beheranzko balioak erakutsi baitzituzten. Azkenik, ekipamendurako ondasunek ibilbide egonkorragoa izan zuten.

Lan kostuek, berriz, ez diete erantzun krisiak sortu dituen zailtasunei eta 2008ko azken hiruhilekoan, kostuen guttizkoa aurreko hiruhilekoan baino are gehiago igo zen (%5,3 eta %5,4, hurrenez hurren). Beraz, lanpostuen galerak ekarri duen lan eskuaren eskaintzaren igoerak ez du balio izan lan kostuak gutxitzeko. Alderantziz, gaurkoa bezalako une batean, iraitzietarako sariek gastuak igoarazten dituzte.


IPRIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

12 irudia

Indize orokorra



Energia



Iturria : Eustat.

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2008			2009
			II	III	IV	Urtarrila
Indize orokorra	4,0	6,6	6,8	9,3	4,6	-1,0
Kontsumoko ondasunak	4,1	4,4	5,0	4,6	3,4	2,8
- Kontsumo iraunkorrak	1,4	3,1	3,0	3,6	3,5	2,3
- Kontsumo iragankorrak	5,3	5,0	5,8	5,0	3,3	3,0
Ekipamendurako ondasunak	3,9	3,0	2,7	2,8	3,0	2,6
Bitarteko ondasunak	6,0	4,2	3,2	6,5	5,0	1,2
Energia	-1,4	20,0	24,4	30,1	6,5	-13,8

Iturria: Eustat.

Azkenik, lan hitzarmenen atalean adierazi behar da urtean zehar adostutako hitzarmenek, eta ondorio ekonomikoak 2008. urtean bertan dituztenek, aurreko urtekoak baino gehikuntza handiagoak jaso zituztela (%5,0 eta %4,2, hurrenez hurren), urte hartako uda arte bizi zen inflazioaren gorakadaren ondorioz eta soldatak berrikusteko klausulen eragina kontuan izanda, 2008ko hasierako soldatetan eragina izan baitzuten. Hala ere, azken hilabeteetan inflazioak erakutsi duen moteltzeko joeraren ondorioz, 2009ko hasieran soldaten hazkundeak txikiagoak dira, hala indarrean dauden hitzarmenetan nola berrietan. Dena dela, oraingoz eskura dagoen informazioa oso urria da.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

20. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2007	2008			
			IV	I	II	III	IV
Kostu guztiak	4,7	5,7	4,9	5,9	6,3	5,3	5,4
- Soldata kostuak	4,8	5,9	4,8	6,1	6,4	5,9	5,4
- Bestelako kostuak	4,4	5,1	5,1	5,2	6,1	3,6	5,7
Kostu guztiak industrian	4,3	7,1	3,4	8,2	7,0	6,0	7,3
Kostu guztiak eraikuntzan	6,8	5,5	9,1	4,5	4,5	6,1	6,5
Kostu guztiak zerbitzuetan	4,7	5,3	5,1	5,0	6,5	5,1	4,8

Iturria: INE.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

21. TAULA

	2004	2005	2006	2007	2008
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,0	4,5	4,9	4,2	5,0
- Urtean zehar sinatutakoak	3,9	4,3	5,0	4,1	4,8
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,0	4,6	5,0	4,2	5,2
- Enpresako hitzarmenak	3,8	4,1	4,1	4,2	4,1

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Ekonomia jardueraren ahultasunak eta Gobernuak 2007an eta 2008an onartu zituen, baina eraginak azken urte horretan metatzen ziren, neurriek eta araudi aldaketek zergen bidezko diru bilketa 2008. urtean %-6,8 jaistea eragin dute. Gogoratu behar da 2007. urtean diru bilketa %9,7 areagotu zela, bi urteetako emaitzen arteko aldea areagotuz. Iazkoa bezalako bilakaera negatibo bat behin bakarrik gertatu zen lehenago, 1994. urtean, hain zuzen ere.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2008ko urtariletik abendura)

22. TAULA

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2007	2008	Aurrekon. %	08/07 aldak. %
PFEZ	4.266.304	4.458.237	101,3	4,5
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	4.040.736	4.322.205	100,9	7,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	237.211	312.169	137,3	31,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	41.587	70.950	166,6	70,6
- Ondare irabazien atxikipenak	40.254	39.872	103,1	-1,0
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	181.643	173.704	89,4	-4,4
- Kuota diferentzial garbia	-275.128	-460.662	---	-67,4
Sozietateen gaineko zerga	2.034.171	1.692.233	83,6	-16,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	237.211	312.169	137,3	31,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	41.587	70.950	166,6	70,6
- Ondare irabazien atxikipenak	40.254	39.872	103,1	-1,0
- Kuota diferentzial garbia	1.715.119	1.269.242	74,0	-26,0
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	175.801	187.572	156,7	6,7
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	76.164	81.829	101,3	7,4
Ondarearen gaineko zerga	154.297	181.309	108,2	17,5
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	6.706.737	6.601.180	97,2	-1,6
BEZaren bertoko kudeaketa	3.661.087	3.173.284	82,2	-13,3
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	372.128	185.062	45,2	-50,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	134.867	115.544	82,7	-14,3
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	77.001	49.197	60,9	-36,1
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.501.086	1.497.171	97,2	-0,3
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	51.957	53.068	99,2	2,1

Aseguru sarien gaineko zerga	78.121	77.141	94,4	-1,3
Iraungitako zergak	1.273	165	16,5	-87,0
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.877.521	5.150.632	83,5	-11,9
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	118.466	113.689	93,0	-4,0
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	12.702.725	11.865.501	90,7	-6,6
BEZaren doikuntza	1.176.342	1.092.202	85,4	-7,2
Zerga berezien doikuntza	-106.944	-123.504	---	-15,5
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	13.772.123	12.834.199	89,9	-6,8

Iturria: Foru Aldundiak.

Iazko azken hilabeteetako bilakaera bereziki negatiboa izan zen eta zeharkako zergen jaitsierari, aurreko hilabeteetan dagoeneko gertatzen baitzen, zuzeneko zergen beherakada gehitu zitzaion. Azken hauen artean, PFEZ salbuespena da. Hala ere, beraren diru bilketaren igoera (%4,5) aurreko urteetakoa baino txikiagoa izan zen. Are gehiago, enplegu galerak jarraitzen badu, oso litekeena da diru sarrera hauek ere moteltzen segitzea eta tasa negatiboetara igarotzea, urtarrileko datuek (%-3,5) dagoeneko aurreratzen dutenez. Zergen bidezko beste neurri batzuek ere, hala nola 400 euroko aurretiazko kenkariak, zergaren ahalmena dirua biltzeko gutxitu zuten.

Beste aldetik, zuzeneko zergen artean pisu handiena duen besteak, hots, sozietateen gaineko zergak, balio oso negatiboa jaso zuen (%-16,8), arrazoi ekonomikoengatik eta araudiaren aldaketengatik. Lehenengoei dagokienez, aipatu behar da enpresen mozkinak asko jaitsi direla, eta bigarrenen kasuan, 2007ko zerga erreformaren eragina (zerga tasaren jaitsiera erabaki zuen) eta zatikako ordainketak kalkulatzeko sistema aldatu izana aipatu behar dira, beste arrazoi batzuen artean.

Analisia zeharkako zergetan fokatzen bada eta BEZarekin hasita, adierazi behar da zerga hori, bere pisua eta izan duen beherakada garrantzitsua (%-13,3) kontuan hartuta, zergen bidezko diru bilketaren murrizketaren erantzule nagusietakoa izan dela. Dagoeneko 2007. urtean hasi zen gastuaren etengabeko moteltzeak, bereziki higiezinaren arloko jardueretan, baina gero familien gastu guztietara hedatuta, zergaren jaitsieraren zati handiena azaltzen du. Hala ere, talde bateratuetarako aitopen erregimen berriak ere diru bilketaren murrizketa eragin zuen atal horretan. Orobat, PFEZ zergarentzat bezala, datozen hilabeteetan lanpostuak galduko dira eta horrek eragin zuzena izango du kontsumoan, BEZaren diru bilketa are gehiago jaitsaraziz. Azkenik, zerga berezien diru bilketa negatiboa izan zen (%-0,3), lehenengo aldiz 1997. urtetik, hots, Foru Aldundiak zerga horiek kudeatzen hasi zirenetik. Zerga horietako garrantzitsuenak, hau da, hidrokarburoen gaineko zergak, %-1,9 gutxiago bildu zuen, erregaiei kontsumoa

gutxitu zelako. Aitzitik, tabakoak %3,6 areagotu zuen diru bilketa, zigarroen paketearen salneurria igo zelako.


Finantza arloa


Estatuko eta nazioarteko finantza merkatuen bilakaera 2008. urtean finantza krisiak eta ekonomia hazkundearen gaineko igurikimenen okertzeak baldintzatu zuten. Banku sistema kaltetu zuten tentsioen ondorioz, kredituak emateko baldintzak gogortu ziren, konfiantza oso azkar galdu zen eta burtsa merkatuek beherakada handiak nozitu zituzten.

Finantza krisiaren tamainak halako neurriak hartu zituen ezen ekonomia errealarari berari ere kalte egin baitzion. Egoera horren aurrean, banku zentralak behartuta zeuden esku-hartze tasetan jaitsiera garrantzitsuak egiteko eta finantza sistemari likidezia emateko, kontsumoa sustatzeko eta, horren bitartez, ekonomia jarduera laguntzeko. Hain zuzen ere, Erreserba Federalak diruaren prezioa zazpi aldiz jarraian merkatu zuen 2008. urtean zehar eta lau puntuz murriztu zuen esku-hartze tasa, bere erreferentzia tasa %0aren eta %0,25aren arteko tarte batean utzi arte. Maila horrek ez dauka aurrekaririk eta aukera gutxi ematen dizkio moneta politikari ekonomia suspertzen lagunduko duen tresna izaten jarraitzeko. 2007ko abuztutik hona interes tasak %5,25etik banda horretara jaitsi badira ere, ez dirudi neurri horiek ekonomia egonkortzeko nahiko izan direnik.

Banku zentraletako erreferentzia tasak
Ehunekoak

13. irudia





Iturria: Espainiako Bankua.

Europako ekonomiak iazko lehen seihilekoan erakutsi zuen bilakaera onaren ondorioz, Europako Banku Zentralak ez zuen beharrezkotzat jo interes tasak jaistea. Aitzitik, uztailean berriro igo zituen. Hala ere, 2008ko urrian, joera hori zeharo irauli zen, AEBetako krisia Europako banku nagusiak kaltetzen hasi zenean. Harez geroztik, bost aldiz jaitsi ditu interes tasak, azkena 2009ko martxoan izan delarik. Hori dela eta diruaren prezioa %1,5era murriztu da, euroa 1999. urtean jaio zenetik inoiz izan duen mailarik apalena delarik. Ingalaterrako Bankuak, berriz, europar ekonomiak baino lehenago hauteman zituen krisiaren ondorioak, finantza arloak herrialde horretako BPGan pisu handiago duelako. BPGren jaitsierak eta higiezinaren arloaren amiltzeak britainiar ekonomia behartu zuten esku-hartze tasa zazpi aldiz murriztera 2008. urtean zehar, 2009ko martxoan %0,5ean kokatu arte. Horrelako maila apalik ez dauka aurrekaririk bankua 1694. urtean sortu zenetik. Japoniako, Txinako, Suitzako, Suediako eta Indiako banku zentralak ere interes tasak jaisteko erabakiak hartu zituzten, ekonomiaren krisiari aurre egiteko.

Esku-hartzeko tasen beherakadez eta kapital txertatzeaz gain, ekonomia nagusiek zerga bidezko egitasmo asko jarri zituzten martxan 2008. urtean zehar eta bide beretik joango dira 2009. urtean ere. Neurri horien gastua ia 1,5 bilioi dolarretara iritsi da eta azpiegiturak eraikitze, lanpostuak sortuko dituzten inbertsioak sustatzeko, enpresa txikiak eta ertainak laguntzeko eta zergak murrizteko erabiliko dira.

Dibisen merkatuetan, finantza ezegonkortasuneko uneek, esku-hartzeko tasen bilakaerak eta munduko ekonomiaren moteltzeak truke tasaren bilakaera baldintzatu zuten. Urteko lehen erdian Euroguneak erakutsi zuen sendotasunak euroak dibisa nagusien aldean balioa irabaztea ahalbidetu zuen. Joera hori bere horretan mantendu zen Eurogunean ere ahultasuneko lehen zantzuak agertu ziren arte. Harez geroztik, europar txanponak gorabehera nabarmenak izan zituen eta irabazitakoaren zati handi bat galdu zuen. Hain zuzen ere, urte amaieran balioa


galdua zuen dolarraren aldean (%5,7), yenaren aldean (%30 inguru) eta Suitzako frankoaren aldean (%5 baino gehiago). Libera esterlinaren aldean bakarrik lortu zuen balioa irabaztea, herrialde horretako finantza sistemaren kaudimenaz sortu ziren zalantzek eta Britainia Handiko banku nagusietako batzuk nazionalizatuko zirelako zurrumurruak eragin handia izan zuten liberaren kotizazioan. 2009ko lehen hilabeteetan, ez zen aldaketa handirik hauteman joera horietan eta EBZk interes tasetan erabaki zituen hurrengo beherakadek euroaren balio galera areagotu zuen dibisa nagusien aldean. Ekonomia eta finantza testuinguruan dagoen ziurgabetasunak eta EBZk interes tasak berriro jaitsiko zituelako aurreikuspenek mesedea egin zioten dolarrari, berriro babes txanpon gisa hartua izan zelako. Hala ere, euroaren gaur eguneko truke tasa azken hamarkadan izan duenaren maila bertsuan dago.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak


14. irudia

Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria : Espainiako Bankua.


Finantza merkatuetako ezegonkortasunak eta ziurgabetasuneko egoerak burtsa merkatuak ere baldintzatu zuten eta gorabehera handiko aldiak izan zituzten, burtsa nagusietan balio galera oso garrantzitsuak jaso zirelarik. Ziurgabetasuna urteko azken zatian areagotu zen, batez ere urrian eta azaroan. Bi hilabete horietan, hirugarren hiruhilabeteko adierazle ekonomiko txarrek pentsarazi zuten ekonomia atzeraldi sakonean sartuko zela. Horri gehitu behar zaio munduko ekonomiaren hazkunderako nazioarteko erakunde nagusiek berriro zuzendu zituztela beherantz aurkeztu zituzten aurreikuspenak, espero zena baino krisi orokor gogorragoa iragarrita. Albiste horiek ezagutu ondoren, munduko burtsa nagusiek behera egin zuten oso bizkor. Beherakada larri horiek zertxobait konpentsatu ziren abenduan eta urtarrilean, nazioarteko merkatuek hobera egin zutelako eta albiste negatiboak urritu zirelako, susperraldi txiki bat ahalbidetuz. Hala ere, burtsako indize guztiek jaso zituzten kotizazioek oso apalak izaten jarraitu zuten.

Interes tasen bilakaera


15. irudia

%

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.


Likidezia txertatze ugariak, esku-hartzeko interes tasen jaitsierek eta, neurri txikiagoan, arrisku primen jaitsierak banku arteko merkatuek ere interes tasak gutxitzea ahalbidetu dute. Hain zuzen ere, urtebeterako euriborra, 2000ko urtarrilaren 1etik Espainian maileguetarako gehien

erabiltzen den erreferentziako tasa ofiziala baita, lau hilabetez behera egin ondoren %1,932an kokatu zen martxoaren 11n, azken sei urteko mailarik apalena baita. Euriborrrak %2ko beheko muga apurtu zuen, lehenengo aldiz bere historia osoan, EBZk interes tasak jaitsi zituen egunaren bezperan. Horren ondorioz, eta egun bakar batez, bi erreferentzia horien arteko aldea negatiboa izan zen. Hiru hilabeterako euriborrra ere bide beretik joan zen eta otsailean EBZren erreferentziaren azpitik kokatu zen.

Interes tasen beherakada horiek mesedegarriak izan dira zorpetuta dauden familientzat, beren errenta erabilgarria igo delako, eta enpresentzat, finantzazioko kostua gutxitu zaielako. Hala eta guztiz ere, ez dirudi euriborraren jaitsierak onura ekartzen dizkienik hipoteka berriak eskatzen dituztenei, azken hilabeteetan adierazle horren eta finantza erakundeek kreditu berriengatik kobratzen dituzten interesen arteko aldea zabaldu delako, Espainiako Bankuaren datuetatik eratortzen denez.

Kreditu eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

16. irudia



Iturria: Espainiako Bankua.

Horregatik guztiarengatik, ez da harritzekoa arlo pribatuak emandako kreditua murriztu izana. Hain zuzen ere, kreditu pribatuak 1995etik inoiz baino gutxiago hazi ziren, eta motelaldi hori orokorra izan zen, hala etxebizitza erosteko kredituetan nola kontsumorako kredituetan hauteman zelako. Hala ere, kredituen apaltzea ez da bankuen kezka bakarra, ekonomia eta finantza baldintzen narriadurak berankortasuna nabarmen areagotu duelako. Zehazkiago adierazita, urteko laugarren hiruhilekoan, EAEko kutxen eta kooperatiben berankortasuneko tasa %2,07ra igo zen, urte hasierako tasa erdia baino gutxiago zegoelarik, %0,9an baitzegoen.

Dena dela, gorakada hori nozitu duen arren, maila ez da bereziki larria oraindik, batez ere Estatuko datuekin alderatzen bada, epealdi berean eta erakunde berentzat abenduko tasa dagoeneko %3,79an zegoelako. Berankortasuna igo den arren, EAEko kutxek eta kooperatibek estaldura orokorreko ratio handia daukate oraindik eta zertxobait jaitsi den arren %91,87an dago. Horrek esan nahi du galtzen den euro bakoitzeko 92 euro dituztela konpentsatzeko.

Azkenik, bankuetako gordailuek, urtea aurrera zihoan heinean erritmoa galdu zuten arren, 1986tik lortzen den gehikuntza tasa gorenetakoa bat jaso zuten, urteko lehen seihilekoan izan zen hazkunde biziari esker. Garai hartan, finantza erakundeek gordailuak erakartzeko eskaintzak egin zituzten, interes tasa interesgarriak eskainiz, merkatuan zegoen likidezia faltari aurre egiteko.

EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak

Consensus Forecasten arabera (23. taula), munduko ekonomiak %-0,8ko urte arteko tasa jasoko du 2009. urtean, bigarren mundu gerra gertatu zenetik inoiz izan den mailarik apalena. Antzeko terminoetan agertzen dira NDFren ordezkariak, berriki egin dituzten hitzaldietan. Ekoizpena eta merkataritza amildu ziren 2008ko azken hilabeteetan, garatutako herrialdeen krisiak garapen bidean dauden herrialdeak kutsatu zituelako. Finantza arloaren inguruan dagoen ziurgabetasun itzelak aktiboen balioa jaitsarazi du, aktibo horien artean etxebizitzaren balioa ere dagoelarik. Beraz, familien aberastasuna gutxitu da eta kontsumoan eginiko gastu osoak ere behera egin du nabarmen. Mundu osoan zehar, kreditua emateko orduan aurkitzen den zurruntasuna da kontsumoa eta enpresen inbertsioa hedatzeko orduan dagoen eragozpenik behinena.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

23. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010
Munduko Ekonomia	2,2	-0,8	2,2	4,7	1,4	2,4
AEB	1,3	-2,1	2,0	3,8	-0,9	1,7
Kanada	0,6	-1,1	2,5	2,4	0,4	2,0
Japonia	-0,4	-3,8	0,8	1,4	-0,8	-0,2
Eurogunea	0,8	-2,0	0,7	3,3	0,8	1,6
Europar Batasuna	1,0	-1,8	0,7	3,4	1,0	1,7
Alemania	1,3	-2,5	0,8	2,6	0,6	1,4
Espainia	1,1	-1,9	0,2	4,1	0,9	2,2
Frantzia	0,7	-1,4	0,8	2,8	0,6	1,5
Herbehereak	1,8	-1,5	0,6	2,5	1,1	1,3
Italia	-0,7	-2,3	0,3	3,3	1,0	1,7
Erresuma Batua	0,7	-2,6	0,6	3,6	1,0	1,9
Pazifikoko Asia	3,7	0,9	4,0	4,5	1,0	1,7
Ekialdeko Europa	4,6	0,6	3,1	11,0	7,8	6,2
Amerika Latinoa	4,3	1,0	2,8	8,3	6,9	6,3

Iturria: Consensus Forecast (2009ko otsaila).

Eskariaren beherakadak lehengaien salneurrietan ere eragin negatiboa dauka. Azken urteetan ez bezala, inflazioaren presioak ez dira kezka bat munduko ekonomiarentzat eta 2009. urtean prezioen maila oro har baxu eta garatutako zenbait ekonomiatan negatibo egongo dela aurreikusten da.

2009. urtea aurrera joango den ahala, Amerikako Estatu Batuetako etxebizitzaren merkatua egonkortuko da eta horrek susperraldi orokorraren oinarria izango dela pentsatzen da. Ekonomia jardueraren pizkundeak finantza sistemaren berrantolaketa jorratuko duen erantzun politiko koordinatu bat beharko du, ziurgabetasuna gutxitzeko eta konfiantza areagotzeko. Orobat, kredituaren urritasuna konpondu beharko da eta moneta zein zerga politika hedakorrak ezarri.


AEBetako ekonomiaren narriadura larriak agerian utzi du etxebizitzaren, finantza merkatuen eta automobilgintzaren arazoak bertako ekonomiaren gainontzeko adarretara eta munduko beste eremuetara hedatu dela. Okertzeko joera finantza krisiak eta kreditu bat lortzeko zailtasunek areagotu dute. Orobat, oraingo egoera konpontzeko agintariek duten gaitasunaz sortu diren zalantzak ere oztopo bat dira susperraldirako. Beraz, ekonomiaren bilakaeraz dauden aurreikuspenak gero eta ilunagoak dira eta oso zaila da jakitea ekonomia jarduera noraino uzkurtuko den. Analisisile gehienen ustez, AEBetako ekonomiak hondoa joko du 2009. urteko udan eta hortik abiatuko dela urte amaiera eta 2010. urtera hedatuko den bizkortze arin bat. Ziurrenez, inflazioa ez da arazo bat izango epe laburrean, neurri handi batean energiaren salneurriak merkeak direlako. Hala ere, hamarkadaren amaieran prezioak bizkor igoko diren arriskua badago. Moneta politika diseinatzeke arduradunek badakite hartu dituzten neurriek inflazioa piztu dezaketela, baina gaur eguneko lehentasuna finantza arloa onbideratzea da eta horretarako interes tasak epe laburrean oso baxu jartzea egokiena dela uste dute.

Asian, ekonomia gutxi batzuek hazkunde positiboari eutsiko diote 2009. urtean, baina azken urteetan erakutsi duten erritmora heldu gabe, nazioarteko ekonomien atzeraldiaren ondorioz. Asiako merkataritza uzkurtu da, alde batetik, esportazioak gutxitu direlako, atzerriko eskaria bera jaitsi delako, eta, beste aldetik, enpresek kreditua lortzeko orduan zailtasun handiak aurkitzen dituztelako. Asia barneko merkataritza Europara edo Amerikara zuzendutako esportazioak baino gehiago murriztu da. Inflazioaren arriskua baztertuta geratu denetik, gaur eguneko kezka nagusia finantza egonkortasuna berreskuratzea eta barne hazkundea sustatzea da. Eskualde horretako banku zentralak buru belarri ari dira kapitaleko merkatuen funtzionamendu eraginkorra lortze aldera likidezia ziurtatuko duten neurriak hartzen.


BPGren bilakaera eremuka
Urte arteko aldakuntza tasak

17. irudia


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina



Iturria : NDF. 2009ko urtarrileko aurreikuspenak.

Txinako ekonomiaren hazkunde tasa nabarmen motelduko da 2009. urtean. Aurreikuspenen arabera, bilakaera indartsua lortuko du, bereziki munduko gainontzeko eremuetan lortuko denarekin alderatzen bada, baina 2007ko tasaren erdia baino ez da izango eta azken hogeituroko apalena. Mendebaldera bideratutako esportazioak moteldu badira ere, egon badaude Txinako ekonomiaren apaltzea eragin duten beste faktore batzuk ere. Gobernuak nahita gerarazi zuen eraikuntzaren jarduera, higiezinaren arloan sor zitekeen burbuila saihesteko. Halaber, industria ekoizpenak ere kanpo eskariaren beherakada nozitu du. Baikortasuna kontsumo pribatuaren sendotasunean datza, baina oso litekeena da aldagai hori ere gutxiago


haztea, langabezia igoko dela eta soldaten hazkundera motelduko dela espero delako. Asiako erraldoi honetan, oraingoz, ez dirudi kreditu merkatuaren mugak agertu direnik. Horrek enpresen inbertsioak laguntzen ditu. Orobat, Txinako gobernuak hainbat erabaki hartu ditu: zerga bidezko neurri hedakorrak, inbertsioak garraiorako azpiegiturretan, osasun arloko hobekuntza gehiago, babestutako etxebizitzetan eginiko gastuaren igoera eta kontsumoko ondasunak erosteko beherapenak.

Indiako ekonomia ere 2009. urtean gutxiago haziko dela aurreikusten da. Indian, oraindik nabariak dira inflazioaren presioak baliabide asko erabiltzen dituelako eta kreditua asko hazi delako. Politikan ebatzi behar den kontu nagusia da inflazioa nola kontrolatu ekonomiaren hazkundera kaltetu gabe. Indiako barne eskariaren moteltzeak ekonomia sustatzeko neurriak hartzera behartu du Gobernuak. Errupiarren alde agertu da eta atzerriko inbertsio zuzenaren kontra zeuden muga batzuk kentzea erabaki du. Indiak zuzenean pairatu ditu finantza krisi orokorraren ondorioak eta likidezia areagotzeko eta kanpora begira lan egiten duten arloen finantzazioa gelditu ez dadin hainbat ahalegin egin ditu.


Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

18. irudia

Dolarrek euroko



Dolarrek upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Japoniaren ekonomiak atzeraldian jarraitzen du. Herrialde hartako ekonomia %3,8aren inguruko tasa jasoko duela 2009. urtean eta %0,8 baino ez dela haziko 2010. urtean aurreikusten da. Atzeraldiaren atzean, japoniar ekonomiaren esportazioekiko mendekotasuna

dago. Esportazioen hondoratzea, bere bezeroen egoera ekonomiko zailaren ondorioz, eta industria jardueraren beherakada handia dira bertako ekonomia hazkunde negatiboko ibilbide batera atzian eraman duten faktoreak. Krisiak gehien kaltetu dituen industria adarrak garraioa, automobilgintza, makineria eta ekipamendu elektrikoaren fabrikazioa dira. Barne eskaria ez da gai, ekonomia sustatzeko helburuan, kanpo arloaren lekukoa bereganatzeko. Kontsumitzaileen eta enpresarien igurikimen ezkorrek kontsumoaren gastua gutxiarazi dute eta inbertsioko egitasmo handiak bertan behera utzarazi. Japoniako Bankuak interes tasa %0,1era murriztu du eta ekonomia gaur egungo atzeralditik irten arte maila horretan atxikiko duela espero da.

Euroguneko ekonomiak azken hiru hamarkadetako egoera kezkarrienean daude. Zehazkiago adierazita, Euroguneko ekonomiaren hazkundera 2009. urtean %-2,0aren inguru jaitsiko dela aurreikusten da, 2010. urtean %0,7 baino haziko ez delarik. Finantza krisia AEBetan hasi zenean, Ekonomia eta Moneta Batasuna osatzen duten europar herrialdeek ekonomia dinamikoa eta langabezia tasa apalak erakusten zituzten. 2008ko amaieran egoera osorik aldatu zen eta arazo nagusia kreditu falta da, enpresariak eta kontsumitzaileak egoera latzari aurre egiteko likidezia behar zuten une berean. Are gehiago, munduaren zati handiena atzeraldian sartuta, merkataritzako bazkideen eskaria bat-batean murriztu zen. Beste aldetik, eragileen konfiantza inoizko maila apalenetan dago eta, enpresarien kasuan, horrek inbertsioko egitasmoak atzeratzera behartzen du.

Europako Banku Zentralak bankuei likidezia emateko neurriak hartu ditu, eta martxoko bileran interes tasa puntu erdi bat jaitsi zuen %1,5ean kokatu arte, erakunde hori sortu zenetik inoiz izan duen baliorik apalena baita. Datozen hilabeteetan ere beste beherakada batzuk onartuko dituela aurreikusten da, diruaren prezioa %1aren azpiko balioetara hurbilduz. Interes tasak dagoeneko horren baxu egonda, EBZri geratzen zaion moneta politikako tresna bakarra aktiboen erosketa da, diru emititu berriarekin ordainduta. Neurri horren bitartez, zirkulazioko esku-dirua areagotzeko eta ekonomia suspertzen laguntzeko.

Europar bilakaera arrakastatsuen izan duten herrialdeetako bat izanda, Espainiak %-1,8ra mugatuko du bere hazkunde tasa 2009. urtean, Funcasek galdetzen dituen aditu taldearen arabera, bereziki eraikuntzak izango duen beherakada neurrigabearen ondorioz. Langabezia tasa ere Europako gorenetakoa izango da eta ez dago garbi une txarrena atzean gelditu ote den edo oraindik etortzeaz dagoen. Zalantzarik gabe, Espainiako ekonomiaren bilakaeraz dauden aurreikuspenak oso negatiboak dira. Cempredek hiruhilabetea osatzen dituen estimazioen arabera, espainiar ekonomiak 2009ko lehen erdian nozituko du atzeraldiaren une larriena, urtariletik martxora bitartean %-2,5eko urte arteko tasa eta bigarren hiruhilekoan %-3,0 jasoko dituelarik. Harez geroztik, narriadura leunduko da urtearen bigarren erdian. Hala ere 2009ko batez bestean, espainiar ekonomia %-2,7 gutxituko da eta 2010. urterako susperraldi arina aurreikusten da %-0,1 lortuta.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2009ko urtarrila-otsaila)

24 TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoen eta bestean	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	1,1	-1,8	0,6	-2,6	4,9	6,6	-2,0	-8,8	-4,4	-9,5	-0,4	-11,6
BBVA	1,1	-1,0	0,4	-1,1	5,0	4,9	-2,2	-8,6	-4,7	-9,6	0,0	-12,3
Caixa Catalunya	1,3	-2,3	0,6	-3,4	4,8	4,4	-1,4	-7,4	-4,2	-11,4	1,2	-5,3
Caja Madrid	1,1	-1,3	0,7	-2,5	4,5	3,3	-1,8	-10,3	-4,9	-13,0	1,2	-10,3
CEPREDE-UAM	1,1	-2,1	0,4	-2,0	5,0	3,7	-1,4	-8,0	-3,6	-8,8	1,0	-7,1
Merkataritza ganbarak	1,0	-2,3	0,5	-2,2	4,9	3,5	-1,7	-6,2	-4,5	-9,1	1,2	-3,2
FUNCAS	1,1	-3,0	0,4	-2,9	5,0	2,6	-2,3	-11,0	-4,6	-10,1	-0,9	-15,9
ICAE-UCM	1,2	-2,1	0,5	-2,7	4,7	3,7	-1,5	-8,6	-4,4	-11,0	0,7	-10,5
ICO	1,2	-2,0	0,6	-2,5	4,9	4,5	-1,7	-8,0	-4,5	-10,0	1,0	-9,0
IEE	1,2	-1,3	0,7	-1,1	5,2	6,7	-1,6	-6,4	-4,2	-7,5	1,1	-7,0
IFL-UC3M	1,1	-1,4	0,5	-0,8	5,0	2,7	-2,0	-9,6	-4,6	-10,8	-0,6	-10,9
Intermoney	1,2	-1,3	0,5	-1,8	5,0	3,8	-1,6	-8,0	-4,3	-10,3	1,1	-8,9
La Caixa	1,2	-1,7	0,7	-1,5	5,1	5,0	-1,5	-7,5	-4,2	-10,0	1,3	-5,4
SCH	1,1	-1,8	0,5	-2,1	4,9	4,3	-1,7	-8,3	-4,4	-10,1	0,6	-9,0
Batez bestea												
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2009-01)	1,2	-1,6	0,5	-1,5	5,1	2,1	-1,8	-9,3	----	----	----	----
Esp. Bankua (2008-04)	2,4	2,1	2,3	1,9	4,8	4,4	1,5	0,4	-0,2	-1,2	4,4	2,6
E. Batzord. (2009-01)	1,2	-2,0	0,4	-2,6	5,2	2,3	-1,9	-6,0	----	----	0,1	-12,7
NDF (2009-01)	1,2	-1,7	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
ELGE (2008-11)	1,3	-0,9	1,2	-0,4	3,6	3,4	-2,0	-9,2	----	----	----	----

Iturria: Funcas.

Eskariaren osagai guztiek okertzeko joera garbia erakutsiko dute. Bereziki larria izango da etxebizitzaren arloaren doikuntza, oraingoz hondoa jo ez duela ematen baitu. Etxebizitzaren eskaintzaren jaitzierarekin batera eskariaren egokitzapen are intentsuagoa gertatzen ari da. Kontsumitzaileen konfiantza ezak eta beraren errentaren moteltzeak balizko erosketak atzeratzea eragin dute eta horrek kalte egiten die sektoreari eta doikuntzaren iraupenari. Higiezinaren merkatuaren desorekak eragina izango du prezioen bilakaeran, bai 2009an bai 2010ean jaisten jarraituko baitute.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko azaroa-abendua)

25. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BIA)	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	0,5	-2,7	2,6	-2,9	0,4	-5,3	4,1	0,4	-0,6	-3,9	11,3	16,3
BBVA	0,5	-2,0	1,8	-2,0	-0,6	-4,5	4,1	0,7	-0,5	-2,7	11,3	15,4
Caixa Catalunya	0,7	-3,1	2,9	-0,4	1,0	-3,1	4,1	0,3	-0,5	-3,1	11,3	15,6
Caja Madrid	0,8	-3,3	3,1	1,1	1,3	-4,7	4,1	0,2	-0,4	-4,0	11,3	16,0
CEPREDE-UAM	0,6	-2,8	3,0	-1,9	1,0	-3,2	4,1	0,7	-0,4	-3,5	11,3	17,0
Merkataritza ganbarak	0,6	-2,0	2,5	-2,5	0,8	-2,6	4,1	2,2	-0,3	-3,7	11,0	16,0
FUNCAS	0,4	-4,2	1,6	-6,1	-0,7	-9,3	4,1	0,1	-0,5	-5,3	11,3	17,2
ICAE-UCM	0,6	-3,2	2,6	-0,2	0,5	-4,1	4,1	1,4	-0,4	-2,8	11,2	15,7
IEE	0,7	-3,0	2,6	0,4	0,8	-3,0	4,1	1,0	-0,4	-4,0	11,3	16,0
IFL-UC3M	0,8	-1,3	2,5	-2,1	0,7	-1,8	4,1	0,9	-0,5	-4,1	11,0	15,3
Intermoney	0,5	-2,5	3,0	0,4	0,7	-3,5	4,1	-0,5	-0,3	-3,9	11,2	15,9
La Caixa	0,7	-2,5	2,7	0,6	0,6	-3,5	4,1	1,2	-0,4	-3,0	11,2	15,2
SCH	0,8	-1,8	2,8	-0,8	1,0	-2,0	4,1	0,7	-0,5	-3,4	11,2	15,9
BATEZ BESTEA	0,6	-2,6	2,6	-1,3	0,6	-3,9	4,1	0,7	-0,4	-3,6	11,2	16,0
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2009-01)	0,7	-3,0	2,9	0,3	0,6	-4,6	4,1	1,0	-0,4	-3,6	11,1	15,9
Esp. Bankua (2008-04)	2,5	1,9	4,0	4,5	4,1	3,4	3,6	2,3	1,5	1,1	9,0	9,8
E. Batzord. (2009-01)	0,6	-2,6	2,9	-2,7	0,5	-4,6	4,1	0,6	-0,7	-3,9	11,3	16,1
NDF (2009-01)	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
ELGE (2008-11)	----	----	3,2	3,7	0,9	-1,6	4,4	1,8	----	----	10,9	14,2

Iturria: Funcas.

Datozen urteetarako, enpleguaren jaitiera Espainian oso handia izango dela aurreikusten da, urteko batez bestean %-3,6 izatera iritsi baitaiteke. Horren ondorioz, langabezia tasak igotzen jarraituko du eta urteko batez bestean %16,0ra iritsiko dela aurreikusi da. Beste aldetik, suspertzeko egitasmoak eta gizarte estaldurak ordaintzeko gastuen igoerak eta zergetan onartu diren jaitsierekin defizit publikoa goraraziko dute, 2009. urtean BPGren %2,9 izatera iritsiko dela uste baita.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2009ko otsaila)

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
BPG	-2,5	-3,0	-2,9	-2,2	-2,6	-0,9	-0,3	0,1	0,7	-0,1
Kontsumo pribatua	-4,2	-5,1	-4,9	-4,1	-4,6	-2,9	-2,5	-2,2	-1,4	-2,2
Kontsumo publikoa	5,6	4,6	3,8	3,8	4,5	3,4	3,0	2,8	2,8	3,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	-12,1	-11,3	-10,2	-6,8	-10,1	-3,9	-1,7	0,5	2,0	-0,8
- Inbertsioa ekipamenduan	-16,0	-17,0	-17,4	-11,2	-15,4	-4,9	-2,0	1,3	3,1	-0,6
- Inbertsioa bestelakoetan	-3,8	-3,4	-3,2	-0,9	-2,8	-0,6	-0,4	-0,2	0,8	-0,1
- Inbertsioa eraikuntzan	-12,9	-11,2	-9,2	-6,7	-10,0	-4,6	-1,9	0,3	2,0	-1,0
Barne eskaria	-4,7	-5,1	-4,7	-3,1	-4,4	-1,9	-1,0	-0,3	0,6	-0,6
Esportazioak	-9,9	-12,2	-11,9	-2,3	-9,1	-0,2	0,7	1,4	2,3	1,1
Inportazioak	-15,8	-17,4	-16,4	-6,4	-14,0	-4,1	-2,3	-0,7	1,0	-1,5



Iturria: CEPREDE.

Hala eta guztiz ere, gaur egun mahai gainean dauden argitu gabeko zalantza handiek zailago egiten dute aurreikuspenak egitea. Ekonomia eragileen igurikimenak argituko edo ilunduko dituzten giltzak asko dira eta, beraien artean, azpimarratu behar dira, alde batetik, higiezinaren doikuntzaren sakontasuna eta norabidea, eta, beste aldetik, bankuek finantzazioa lortzeko jarri dituzten oztopoak. Halaber, ezinbestekoa izango da kontsumitzaileek eta enpresariak konfiantza berreskuratzea.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak

19. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria : INE eta CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak epe laburrean

Nazioarteko ekonomiaren gaur egungo egoera eta argitaratu diren azken adierazleak kontuan hartuta, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak beherantz berrikusi ditu Euskal Autonomia Erkidegorako hazkunde aurreikuspenak datozen urteetarako. 2009. urtean %-1,3ko beherakada jasoko duela estimatu da. Urteko azken hilabeteetan suspertzeko zantzu txikiak hautemango dira, 2010. urtean zehar sendotuko direnak. Hala ere, urte horretan berriro gehikuntza tasa negatiboa jasoko da, lau hamarrenekoa.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2009ko martxoa)

27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
BPG	-0,8	-1,4	-1,9	-1,1	-1,3	-0,8	-0,5	-0,3	0,1	-0,4
Azken kontsumoa	0,0	-0,1	-0,3	0,1	-0,1	0,3	0,5	0,5	0,7	0,5
Kontsumo pribatua	-1,3	-1,4	-1,6	-0,9	-1,3	-0,5	-0,2	-0,1	0,2	-0,2
Kontsumo publikoa	5,5	5,2	4,8	4,0	4,9	3,8	3,5	3,1	3,0	3,3
Kapital eraketa gordina	-4,0	-4,4	-4,7	-3,0	-4,0	-2,3	-2,1	-1,8	0,3	-1,5
Barne eskariaren ekarpena	-1,3	-1,5	-2,0	-1,1	-1,5	-0,7	-0,5	-0,4	0,0	-0,4
Kanpo saldoaren ekarpena	0,5	0,1	0,1	0,0	0,2	-0,1	0,0	0,1	0,1	0,0
Lehen arloa	-8,5	-9,1	7,9	6,5	-0,8	-1,7	7,0	7,2	4,0	4,1
Industria	-4,2	-4,4	-5,0	-3,2	-4,2	-2,5	-2,3	-2,0	-1,1	-2,0
Eraikuntza	-3,8	-4,3	-3,9	-2,9	-3,7	-2,9	-2,5	-1,3	-0,8	-1,9
Zerbitzuak	1,5	0,7	0,0	0,2	0,6	0,5	0,6	0,7	0,7	0,6
Balio erantsi gordina	-0,8	-1,4	-1,8	-1,0	-1,3	-0,7	-0,5	-0,3	0,0	-0,4
Ekoizkinen g. zerga garbiak	-0,9	-1,7	-2,2	-1,8	-1,7	-1,3	-0,9	-0,3	0,2	-0,6
BPGren deflatorea	2,1	2,3	2,3	2,1	2,2	2,0	1,9	2,0	2,3	2,0
Enplegua	-2,3	-2,6	-2,8	-2,5	-2,6	-2,1	-1,8	-1,6	-1,0	-1,6
Langabezia tasa	7,0	8,3	8,8	9,5	8,4	9,7	9,9	10,0	10,0	9,9


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekonomiaren krisiak industriaren jarduera oso gogor kolpatu du eta balio erantsia 2009. urtean %-4,2 jaitsiko dela aurreikusten da. 2010. urtean, hazkunde tasa negatiboa izango da berriro, baina txikiagoa, %-2,0, hain zuzen ere. Zikloaren une larriena 2009ko erdialdean gertatuko da eta gero industria suspertzen hasiko da. Eraikuntzaren egoera ere gero eta kezkagarriagoa izango da eta urte arteko beherakadak jasoko ditu aurreikusitako epealdi osoan. Etxebizitzaren eskaria txikiak, sektorean ezinbestekoa den doikuntzak eraginda,

eta gainontzeko atalen amiltzea konpentsatzeko obra publikoaren ezintasunak eraikuntzaren balio erantsiaren jaitsiera garbia ekarriko dute. Beste aldetik, zerbitzuak, EAEko ekoizpen egituraren pisu gehien duen arloa baita, balio erantsiaren hazkunderari ekarpen positiboa egingo dion arlo bakarra izango dira. Hala ere, zerbitzuek ere moteltzeko joera garbia erakutsiko dute eta %0,6aren inguruan haziko da bi urteetan. Apaltzeko joera are biziagoa izango da zerbitzu pribatuaren eta saltzekoak ez diren zerbitzuen sendotasunak konpentsatuko du. Izan ere, merkaturatzen ez diren zerbitzuek portaera dinamikoa erakutsiko dute, aurrekontuetan murrizketak egon daitezkeen arren.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

20. irudia



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Barne eskariaren atal guztiek beherakadak izango dituzte beren jardueran datozen epealdietan. Azken kontsumoko gastuak hazkunde tasa negatiboak jasoko ditu kontsumo pribatuaren okertze garbiaren ondorioz. Administrazio publikoaren gastua izango da hazkunde positiboak lortuko dituen bakarra, erosteko ahalmenean gauzatuko den atzerakada konpentsatuz. Finantza krisiak eragin dituen kreditu murrizketek, familien konfiantza galerak, aberastasun efektu negatiboak eta, bereziki, lan merkatuaren bilakaeraz dauden aurreikuspen ezkorrek Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kontsumitzaileak ondasun eta zerbitzu gutxiago erostera behartuko dute. Kontsumo pribatuak bere hazkunde erritmoa gutxituko du eta familiek zuhurtasunez jokatu behar dute, irabazitakoaren zati handiago bat aurreztuz, ekonomiaren egoera okertuko delakoan.

Kapital eraketa gordinak ere ez du une gozori ezagutuko aurreikuspen hauetan aztertu den epealdian. Eskariaren ahultasunak, hala barnekoak nola kanpokoak, enpresarien inbertsioak murriztuko ditu. Nazioarteko ekonomiaren egoeraz dauden aurreikuspen ezkorrak eta EAEko industriak kanpora oso irekita dagoela kontuan hartuta, Europarako espero diren galerak oztopo handia izango dira hemengo ekoizpenerako. Beraz, datozen hilabeteetarako, enpresarien igurikimenek negozio zenbatekoaren murrizketak aurreratzen dituzte, barne merkatuaren bizitasuna galgatu delako eta esportazioak motelduko direlako. Testuingurua hori delarik eta kreditu bat lortzea gero eta zailagoa izango denez, inbertsio egitasmoak nabarmen urrituko dira. Beste aldetik, etxegintzaren arloan bideratzen ari den doikuntzak eraikuntzaren amiltzea areagotuko du. Eskaintza nabarmen gutxituko da, hasiko diren etxebizitzaren kopurua askoz ere txikiagoa izango delarik. Eskariak ere atzerakada garrantzitsua biziko du, lanpostuak galduko direlako, familien errentak gutxiago haziko direlako eta kreditu bat lortzea gero eta zailagoa izango delako. Portaera orokor horren ondorioz, prezioak are gehiago jaitsiko dira.

Kanpo saldoak ekarpen positiboa egingo dio barne produktu gordinaren hazkundeari, esportazioak inportazioak baino gehiago haziko direlako. Konfiantza merkatuetara itzultzen den heinean eta inguruko ekonomiak hazten hasiko diren neurrian, merkataritzako fluxuak berpiztuko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoak onurak jasoko ditu, nazioarteko merkatu nagusietan ondo kokatuta dagoelako.

Ekonomia jardueran estimatu diren jaitsiera garrantzitsuek enplegu galera handiak eragingo dituzte arlo guztietan. Hain zuzen ere, 2009. urtean 26.000 lanpostu inguru galduko direla aurreikusten da. 2010. urtean ere lanpostuak desagertuko direla espero da, nahiz eta aurreko urteko kopurura iritsi gabe. Lan merkatuak bi urte horietan ezagutuko duen narriadura langabezia tasaren bilakaeran ere hautemango da, gorakada garrantzitsua izango duelako, une jakin batzuetan bi zenbakiko tasara ere iritsi baitaiteke.

Taula makroekonomikoaren aurreikuspen hauetan oraindik begi bistakoak dira ziurgabetasunak eta baldintza erabakigarriak, eta azpian nazioarteko inguruan, prezioetan, interes tasetan eta truke tasetan eginiko hainbat hipotesi daude. Zehazkiago adierazita, datozen urteetan ez da aurreikusten inflazio altuko egoerarik. Lehengaiek eta elikagaiek eragin zituzten desorekak zuzenduta, %2,0aren inguruko deflatoreak estimatu dira BPG-ko. Joera hori orokorra da Euroguneko herrialde guztientzat eta, hori dela eta, EBZk interes tasak berriro jaitea erabaki dezake, ekonomiaren jardura sustatu aldera. Zentzu horretan, oso litekeena da 2009. urtean interes tasak berriro jaitea eta, alderantziz, 2010. urtean igoera arin bat erabakitzea, behin ekonomia suspertzen hasi ondoren.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2009ko martxo)

28. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010
AEB	0,0	-1,9	-2,5	0,3	-1,1	1,4	2,0	1,9	2,1	1,8
Eurogunea	1,0	0,5	0,3	1,4	0,8	2,1	2,0	2,0	1,9	2,0
Espainia	0,6	-0,2	-0,5	0,8	0,2	1,9	2,1	2,2	2,2	2,1
EAE	0,6	-0,1	-0,4	0,8	0,2	2,0	2,2	2,2	2,3	2,2


Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Euroak estatubatuar dirua baino indartsuago izaten jarraituko du. Hala ere, europar txanpona zertxobait ahulduko da dolarren aldean 2009. urtean eta joera hori biziagoa izango da 2010ean. Horiak horrela, euroaren batez besteko kotizazioa 1,32 dolarretan kokatuko da 2009an eta 1,28an 2010ean.

KPIren bilakaera

21. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat, INE , Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

